DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad

# 2018KO UDAL AURREKONTUEN ANALISIA GENERO IKUSPEGITIK

2017ko azaroa

# 2018KO UDAL AURREKONTUEN ANALISIA GENERO IKUSPEGITIK

## AURKIBIDEA


1.LEGE ESPARRUA 4

2.GENERO IKUSPEGIDUN AURREKONTUAK 4

3.DONOSTIAKO UDALAK AURREKONTUETAN GENERO IKUSPEGIA SARTZEKO EGIN DUEN BIDEA 5

4.2017AN GARATUTAKO PROZESUA. AURREKO TXOSTENETAN JASOTAKO GOMENDIOEI BURUZKO BALORAZIOA 6

5.2017KO UDAL AURREKONTUETAKO BERDINTASUNERAKO KONTU-SAIL ESPEZIFIKOEN EXEKUZIOA 6

6.AURREKONTU OROKORRAK 10

7.AZTERTUTAKO PROGRAMAK 15

**7.1. Babes eta sustapen sozialeko jarduketak** 16

- Berdintasuna 16
- Lankidetza eta garapenerako heziketa 19
- Gizarte Ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa 21
- Gizarte Zerbitzuguneak 22
- Adin txikikoen prebentzioa eta familia 23
- Adineko pertsonen sustapena 24
- Zaharren egoitzak 26
- Apartamentu tutelatuak 26
- Etxez etxeko laguntza 28
- Gizarte larrialdietarako laguntzak 30
- Gizarte abegi etxea 30
- Gizarteratzea 31

7.2. Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena 34

- Ikastetxeen funtzionamendua 34
- Heziketarako programak 34
- Giza eskubideak 36
- Kultur aniztasuna 37
- Donostia Kultura 38
- Musika eta Dantza Eskola / Liburutegia / Txistulariak 40
- Gazteria 42
- Donostia Kirola / Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola) / Kirolak: 44

zuzendaritza eta administrazioa

7.3. Oinarrizko zerbitzu publikoak 46

- Udaltzaingoa 46
- Hiri mugikortasuna 46
- Hirigintza 49
- Etxegintza 50
- Bide publikoak 51
- Argiteria 51
- Parkeak eta lorategiak 52
- Hondartzak 52

7.4. Jarduketa ekonomikoak 53

- Hiri mantentze eta zerbitzuak: Zuzendaritza eta administrazioa 53
- Proiektuak eta obrak 54
- Donostiako Sustapena 54
- DBUS 56

7.5.Jarduketa orokorrak 58

- Herritarren parte hartzea 58

8. GASTU ERALDATZAILEA 2018KO UDAL AURREKONTUETAN 60

9. HOBETZEKO PROPOSAMENAK 61

I. ERANSKINA. EMENDAKINAK

# 1.LEGE ESPARRUA

UDAL ARAUDIA

- Gobernu Batzarrak 2014ko apirilaren 25ean onartutako Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean jasotako 1.2. neurria: <<Donostiako Udalaren Aurrekontu Orokorrak genero ikuspegitik lantzea>>.

AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIA

- 4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA. 14. artikulua. <<Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan>>.

- EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VI. PLANA. Gobernantza hobetzeko G9 neurria: Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.
  *G9.2 aurrekontuak berdintasunean duen eraginaren aurretiko balorazioa egiten duten herri administrazioen kopurua handitzea.*
  *G9.3 Genero ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko jarduerak egiten ari diren herri administrazioen kopurua handitzea.*

# 2. GENERO IKUSPEGIDUN AURREKONTUAK

Aurrekontu publikoek eragina dute jende talde bakoitzak (emakumeak, gizonak, migratzaileak, adinekoak, gazteak eta haurrak) eskura dituen baliabideetan. Genero ikuspegia duten aurrekontuek bi helburu dituzte:

1.Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunik eza kontuan izanik, aurrekontuek emakumeengan eta gizonengan zer eragin duten ezagutzea, aintzat hartuta, ahal den neurrian, beste diskriminazio ardatz batzuk ere, hala nola adina, migrazio egoera edo errentaren maila.

2.Berdintasuna sustatzeko tresna izatea. Genero mainstreaminga formula garrantzitsuenetako bat da, gaur egun, berdintasun eraginkorraren aldeko urratsak egiteko. Estrategia horren helburua da jarduera publiko guztiak genero ikuspegitik aztertzea, jarduera horiek genero desberdintasunak ez betikotzeko edo handitzeko.

***Aurrekontuen analisia genero ikuspegitik tresna baliagarria da desberdintasunei buruz eta desberdintasun horiei aurre egiteko moduei buruz ikasteko; horrez gain, lagundu egiten du erabakiak hartzen gaiari buruzko informazioa kontuan hartuta.***

# 3. DONOSTIAKO UDALAK AURREKONTUETAN GENERO IKUSPEGIA SARTZEKO EGIN DUEN BIDEA

**Aurrekontu genero ikuspegidunak prestatzeko prozesua** 2013ko ekainean hasi zen, Berdintasun Bulegoak lan jardunaldi bat antolatu zuenean Andaluziako Juntak gai horretan zuen esperientzia ezagutzeko. Jardunaldi hartan, Udaleko langile politikoek eta zuzendariek parte hartu zuten, baita Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Unitateko teknikariek eta aurrekontua osatzeko ardura zuten zenbait sailetako teknikariek ere.

2013ko uztailean, Berdintasuna eta Ogasun atalek metodologia bat adostu zuten. Bertan, aintzat hartzen ziren Andaluziako esperientziako elementu batzuk, baina Donostiako Udalaren neurrira, konpetentzietara eta denboretara egokitzen saiatu ziren.

Handik aurrera, aurrekontu programei eta haiei lotutako jarduerei eta langileei buruzko informazioa biltzen hasi ziren, Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañaga Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen aholkuak aintzat hartuta.

2014ko otsailean, ***Aurrekontuak genero perspektibarekin egiteko gomendio txostena*** argitaratu zen, ordurako Udalbatzak onartuta zuen 2014ko aurrekontu proposamenari zegokiona, eta horrek ezarri zituen oinarri metodologikoa eta gomendioei jarraituta eman beharreko hurrengo urratsak. Horrez gainera, aldez aurretik jasotako informazioa aztertuta, prozesuan sakon landu beharreko lehentasunezko arloak zehaztu zituen, hauek, zehazki:

- Hiri azpiegiturak eta zerbitzuak
- Mugikortasuna
- Gizarte ongizatea
- Gizarte sustapena
- Herritarren parte hartzea
- Donostia Kultura

2014. urtean, gobernu taldeak aurrekontuen genero eraginari buruzko prestakuntza jaso zuen, eta lanerako eta prestakuntzarako saio bat egin zen aipatutako alorrekin eta Ogasuneko eta Berdintasuneko teknikariekin.

2014ko abenduan, ***Udal aurrekontuen azterketa genero ikuspegitik – 2015*** txostena aurkeztu genuen, orduan proposamen fasean zegoen 2015eko aurrekontuei buruzkoa.

Zenbait hilabeteko geldialdiaren ondoren, prozesuari heldu genion berriro, 2015eko azken hiruhilekoan. Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Unitatearekin elkarlanean, 2015eko abenduan ***Udal aurrekontuen azterketa genero ikuspegitik - 2016*** txostena aurkeztu genuen, orduan proposamen fasean zegoen 2016ko aurrekontuei buruzkoa. Azken horretan, bi aldaketa nagusi sartu ziren:

- Udal aurrekontuak soilik aztertu ziren txostenean. Plantillaren eta kontratazioaren gaineko azterketa txosten espezifikoetan egin ziren.
- Aurrekontu programen arabera egituratu zen txostena, atalen edo zuzendaritzen araberako azterketa egin beharrean.

Geroztik, Berdintasun Bulegoak eta Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Unitateak elkarrekin egiten dute lan udal aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko.

## 4. 2017AN GARATUTAKO PROZESUA. AURREKO TXOSTENETAN JASOTAKO GOMENDIOEI BURUZKO BALORAZIOA

2017ko txostenaren amaieran, hiru irizpide hauek zehaztu ziren aurrekontuetako genero eragina sakonago ebaluatzeko:

• Hautatutako aurrekontu programetan sartu diren berdintasunerako kontu-sail espezifikoen **gastu exekuzioaren segimendua egitea** eta garatutako jarduerak aztertzea.

• **Hautatutako aurrekontu programen eragina ikusgai jartzea**; horretarako beharrezkoa da udal atal, enpresa eta erakundeek proposatutako genero adierazleen balioak ematea.

• Aurrekontu programen **analisia pixkana-pixkana hedatzen jarraitzea**, genero ikuspegitik jarduera garrantzitsua egiten duten udal enpresetara eta erakunde autonomiadunetara.

Aurten, proposatutako lehen irizpideari eman diote lehentasuna Aurrekontu Atalak eta Berdintasun Bulegoak, **berdintasunerako gastu espezifiko hori finkatzea lortzeko, kontu-sail horien gastu exekuzioaren bitartez**; hala, atzeratu egin dute aurrekontu programen analisia pixkana-pixkana hedatzen jarraitzea.

Bestalde, bigarren irizpideari dagokionez ere, aurrerapenak egin dira; hain zuzen, beharrezko diren datuen eskaera bideratu da Udaleko Datuen Behatokiaren bitartez (Lehendakaritza Zuzendaritzaren mende dago Behatokia).

## 5. 2017KO UDAL AURREKONTUETAKO BERDINTASUNERAKO KONTU-SAIL ESPEZIFIKOEN EXEKUZIOA

2016an abiarazi zen prozesuaren ondorioz, 2017ko udal aurrekontuetan hainbat hobekuntza jaso ziren, eta horiei esker, handitu egin zen aurrekontuen gastu eraldatzailearen ehunekoa. Gastu eraldatzailetzat jotzen da genero desberdintasuna sostengatzen duten funtsezko egiturak hausten laguntzen duen gastua, bai eta desberdintasun horren muina diren mekanismoak desegiten laguntzen duena ere.

| Atalak | 1. kap. | 2. kap. | 4. kap. | 6. kap. | GUZTIRA | Aurrekontu osoaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Berdintasuna | 392.661,24 | 191.999,80 | 106.000,00 | 57.000,00 | 747.661,04 | % 0,18 |
| Lankidetza | | | 571.047,22 | | 571.047,22 | |
| Gizarte Ongizatea | 115.000,00 | 6.500,00 | | | 121.500,00 | |
| Heziketarako programak | | 60.144,35 | | | 60.144,35 | |
| Giza eskubideak | | 5.000,00 | | | 5.000,00 | |
| Kultur aniztasuna | | 7.350,00 | | | 7.350,00 | |
| Donostia Kultura | | 11.000,00 | | | 11.000,00 | |
| Musika eta dantza eskola | | 3.600,00 | | | 3.600,00 | |
| Gazteria | | 20.500,00 | | | 20.500,00 | |
| Donostia Kirola | | 4.235,00 | | | 4.235,00 | |
| Hirigintza | | 3.000,00 | | | 3.000,00 | |
| Hiri mantentzea eta zerbitzuak | | 25.000,00 | | | 25.000,00 | |
| DBUS | | 4.500,00 | | | 4.500,00 | |
| Herritarren parte hartzea | | 6.000,00 | | | 6.000,00 | |
| **GUZTIRA** | 507.661,24 | 348.829,15 | 677.047,22 | 30.000,00 | 1.590.537,61 | **% 0,38** |

Iturria: 2017ko udal aurrekontuen azterketa genero ikuspegitik.

2017an, berdintasuna betekizun espezifikotzat ez duten udal departamenduek, enpresek eta erakundeek 2. kapituluan sartutako kontu-sail espezifiko horietan izan duten exekuzioaren jarraipena egin da.

### ●GIZARTE ONGIZATEA

*226.09 Ikerketa eta lan teknikoak* kontu-sailean sartutako 5.000,00 euroetatik, 1.140,00 euro *Zaintzak* webgunearen mantentze-lanetan gastatu dira, eta 3.465,00 euro, indarkeria matxistaren kasuak gainbegiratzeko lanetan. Horrez gain, 227.04.02 kontu-saileko 1.500,00 euroak gastatu dira indarkeria matxistaren aurkako prebentzio programaren garapenean.

Guztira, aurreikusitako kontu-sail espezifikoen <u>% 93,9 gastatu da</u>.

### ●HEZIKETARAKO PROGRAMAK

<u>Hitzartutako 60.144,35 euroen % 100 exekutatu da</u> programa hauen garapenean: Zientziari so programa (8.228,00 €), Berdintasun programa (25.000,00 €), Genero indarkeriaren prebentzio programa (20.000,00 €)

eta zuzenean emateko beste diru laguntza batzuk (6.916,35,00 €) Hip, Hi, Hurri programa garatzeko.

Berdintasun programaren 25.000,00 euroak ekintza hauetarako erabili dira: bullying-aren prebentziorako antzezlan bat antolatzeko (8.000,00 €), ikastetxeetako jolastokietan hezkidetza proiektuak bultzatzeko – zehazki, Arantzazuko Ama ikastetxean (6.000,00 €) eta Jakintza ikastolan (3.000,00 €)– eta eskoletan antzezlan txikiak egiteko (Aieteko eskolan (4.000,00 €) eta beste batzuetan).

Genero indarkeriaren prebentzio programa ikastetxean esku hartzeko programa bat da, eta Lahia-Nahia Sexologia Elkartea kontratatuz egin da.

**●GIZA ESKUBIDEAK**

226.99.02 kontu-sailean aurreikusitako 5.000,00 euroetatik 4.000,00 gastatu dira (% 80,0) ekainaren 28ko LGTBQ eguneko kanpainarako.

**●KULTUR ANIZTASUNA**

226.99.03 kontu-sailean aurreikusitako 7.500,00 euroen <u>% 100 exekutatu da</u>, Emakumeen kulturarteko gunea garatzeko, hain zuzen; gune horretan, 196 emakumek hartu dute parte.

**●DONOSTIA KULTURA**

Berdintasunerako barne plana ezartzeko aurreikusitako kontu-sailaren % 100 gastatu da: 11.000,00 euro.

Horrez gain, Larratxoko eta Intxaurrondoko kultur etxeetan Emakumearen Astea antolatzeko egindako gastua kontabilizatu da; guztira, 5.693,15 euro.

**●MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA**

Aurreikusitako 3.600,00 euroak gastatu dira ekintza hauetan:
•Piano lehiaketan, **zenbait tailer** antolatu dira, Musikenerekin lankidetzan, **konpositoreen lana ezagutzera emateko**; tailer horiek irekiak izan dira, ikasleentzat, irakasleentzat…
•Emakumeek konpostatutako **partituren bilketa** bat egin da.

**●GAZTERIA**

226.06.07 kontu-sailean, 20.500,00 euro aurreikusi ziren indarkeria matxistaren prebentziorako, eta horietatik, <u>18.673 euro (% 91,1) gastatu dira</u> programa eta jarduera hauetan:
•**Indarkeria matxista nerabezaroan jardunaldiak**. Urriaren 25ean egin dira San Telmo museoan, eta jardunaldi horietan, hezkuntza arloko 130 profesionalek hartu dute parte (7.473 €).
•**Beldur Barik indarkeria matxistaren aurkako prebentzio programa**. Lehenbiziko aldiz antolatu da tokiko lehiaketa; sari banaketen ekitaldia egin zen, eta, horrez gain, tailerrak antolatu ziren Kontadores zentroan (4.100 €).
•**Gure txoko proiektua**. Genero ikuspegia haurtxokoetako eta gaztelekuetako funtzionamenduetan sartzeko proiektua (4.000 €).
•Berdintasunerako jarduerak **Gabonak Zuretzat** programaren baitan (1.500 €).
•**Bullying-aren prebentziorako antzezlana**, gaztelekuetan (1.600 €).

**●DONOSTIA KIROLA**

4.235,00 euro gastatu dira ***Goazen neskak*** **bideoa** egiten. Horrez gain, beste 2.500,00 euro erabili dira **emakumeak korrika egitera bultzatzeko kanpaina** batean, baina ez zen kontu-sail espezifiko modura ageri. Horrenbestez, <u>hasiera batean aurreikusitakoaren % 159,0</u> gastatu da.

●**HIRIGINTZA**

Ez da gastatu III. Berdintasun Planean aurreikusitako neurriak ezartzeko aurrekontuan jasotako 3.000,00 euroren kontu-saila.

●**MANTENTZEA**

25.000,00 euroren 226.99.02 kontu-sailean, 20.000 euro aurreikusi ziren puntu kritikoei dagokienez hobekuntzak egiteko, eta beste 5.000 euro, genero ikuspegia aintzat hartzen den partaidetza prozesuetarako. Kontu-sail horretatik, 10.398,45 euro gastatu dira **Txomineko lurpeko pasabidea egokitzeko lanetarako**, eta 4.231,73 euro, **kanalizazioa eta hiru argi puntu jartzeko Paradisu kalean, 22. zk. (baserria)**; aurreikusitako gastuaren % 58,5 gastatu da guztira.

●**DBUS**

Aurreikusitako 4.500,00 euroak gastatu dira **Gautxori zerbitzuaren erabilera bultzatzeko**, emakumeen artean, bereziki.

●**PARTE HARTZEA**

2017ko aurrekontuetan sartutako 6.000,00 euroak gastatu dira **puntu kritikoen etengabeko ebaluaziorako sistema bat egiteko**.

# 6. AURREKONTU OROKORRAK

Txosten hau atxikita daraman aurrekontu proposamenaren arabera, **Donostiako Udalak 444.929.770,66 euro kudeatuko ditu 2018an, iaz baino 28.669.362,19 euro gehiago**; beraz, **% 6,89 handitu da** udal aurrekontua, 2017koarekin alderatuta.

Hazkunde horretan eragina izan dute Anoeta Kiroldegia SAk, Anoetako estadioa berritzeko, erakunde hauetatik jasoko dituen sarrerek: Real Sociedad de Fútbol (23.436.268,94 €), Eusko Jaurlaritza (3.300.000,00 €) eta Gipuzkoako Foru Aldundia (2.000.000,00 €).

Gastu helburuak aintzat hartuta, hazkunde handiena, ehunekotan, *Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena* (osasuna, hezkuntza, kultura, kirola) atalean izan da, % 33,61; horren atzetik, *Jarduketa orokorrak* (gobernu organoak, administrazio orokorra…) atala dago, % 18,12ko hazkundearekin.

Hazkunde nabarmen txikiagoa izan dute jarduketa hauek: *Jarduketa ekonomikoak* (merkataritza, turismoa, garraioa, azpiegiturak…), % 3,28; *Babes eta sustapen sozialeko jarduketak* (gizarte zerbitzuak eta berdintasuna), % 2,26, zaintzari eta bizitzaren sostengagarritasunari oso lotuta daudenak eta genero ikuspegitik giltzarri direnak; eta *Zor publikoa*, % 1,83.

Bestalde, *Oinarrizko zerbitzu publikoen* gastua (herritarren segurtasuna, etxebizitza, hirigintza, ura eta saneamendua, hondakinak eta abar) % 3,96 jaitsi da.

| Gastu helburuak | 2017 | | 2018 | | Aldea | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | % | Guztira | % | Guztira | % |
| Oinarrizko zerbitzu publikoak | 184.346.024,50 € | %44,29 | 177.037.093,06 € | %39,79 | -7.308.931,44 € | -%3,96 |
| Babes eta sustapen sozialeko jarduketak | 28.599.981,92 € | %6,87 | 29.246.487,44 € | %6,57 | 646.505,52 € | %2,26 |
| Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena | 77.853.111,77 € | %18,70 | 104.016.572,35 € | %23,38 | 26.163.460,58 € | %33,61 |
| Jarduketa ekonomikoak | 74.226.983,89 € | %17,83 | 76.663.967,86 € | %17,23 | 2.436.983,97 € | %3,28 |
| Jarduketa orokorrak | 35.577.319,58 € | %8,55 | 42.022.201,31 € | %9,44 | 6.444.881,73 € | %18,12 |
| Zor publikoa | 15.656.986,81 € | %3,76 | 15.943.448,64 € | %3,58 | 286.461,83 € | %1,83 |

Gastu politikak kontuan hartuta, *Kirola* atalean izandako hazkundea nabarmendu behar da (% 108,98). Garbiki txikiagoak izan arren, *Gobernu organoak* eta *Administrazio orokorra* ataletan izandako hazkundeak ere nabarmendu behar dira, % 27,67 eta % 19,75, hurrenez hurren. Atzetik izan dira *Hezkuntza* (% 9,78), *Finantza eta zerga administrazioa* (% 6,50) eta *Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainen administrazio orokorra* (% 5,47).

Aldiz, jaitsi egin dira atal hauek: *Erretiro pentsioak* (-% 16,67), *Beste jarduketa ekonomiko batzuk* (-% 8,47), *Etxebizitza eta hirigintza* (-% 8,28), *Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna* (-% 1,93), *Komunitate ongizatea* (-% 1,70) eta *Kultura* (-% 1,37).

| Gastu politikak | 2017 | | 2018 | | Aldea | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | % | Guztira | % | Guztira | % |
| OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK | | | | | | |
| Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna | 48.556.192,09 € | %11,66 | 47.617.534,34 € | %10,70 | - 938.657,75 € | -%1,93 |
| Gastu politikak | 69.937.701,48 € | %16,80 | 64.148.069,32 € | %14,42 | - 5.789.632,16 € | -%8,28 |
| Etxebizitza eta hirigintza | 53.641.814,34 € | %12,89 | 52.729.964,98 € | %11,85 | - 911.849,36 € | -%1,70 |
| Ingurumena | 12.210.316,59 € | %2,93 | 12.541.524,42 € | %2,82 | 331.207,83 € | %2,71 |
| BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETAK | | | | | | |
| Erretiro pentsioak | 24.000,00 € | %0,01 | 20.000,00 € | %0,00 | - 4.000,00 € | -%16,67 |
| Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk | 943.492,38 € | %0,23 | 959.702,38 € | %0,22 | 16.210,00 € | %1,72 |
| Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena | 27.632.489,54 € | %6,64 | 28.266.785,06 € | %6,35 | 634.295,52 € | %2,30 |
| LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN SUSTAPENA | | | | | | |
| Osasuna | 2.213.841,18 € | %0,53 | 2.275.198,31 € | %0,51 | 61.357,13 € | %2,77 |
| Hezkuntza | 12.304.368,63 € | %2,96 | 13.507.302,14 € | %3,04 | 1.202.933,51 € | %9,78 |
| Kultura | 39.985.651,24 € | %9,61 | 39.439.170,17 € | %8,86 | - 546.481,07 € | -%1,37 |
| Kirola | 23.349.250,72 € | %5,61 | 48.794.901,73 € | %10,97 | 25.445.651,01 € | %108,98 |
| JARDUKETA EKONOMIKOAK | | | | | | |
| Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainen administrazio orokorra | 19.126.998,92 € | %4,59 | 20.173.216,46 € | %4,53 | 1.046.217,54 € | %5,47 |
| Garraio publikoa | 36.739.011,80 € | %8,83 | 37.355.268,34 € | %8,40 | 616.256,54 € | %1,68 |
| Azpiegiturak | 18.253.173,17 € | %4,39 | 19.036.816,96 € | %4,28 | 783.643,79 € | %4,29 |
| Beste jarduketa ekonomiko batzuk | 107.800,00 € | %0,03 | 98.666,10 € | %0,02 | - 9.133,90 € | -%8,47 |
| JARDUKETA OROKORRAK | | | | | | |
| Gobernu organoak | 4.917.416,81 € | %1,18 | 6.278.010,09 € | %1,41 | 1.360.593,28 € | %27,67 |
| Administrazio orokorra | 23.326.852,31 € | %5,24 | 27.934.426,11 € | %6,28 | 4.607.573,80 € | %19,75 |
| Finantza eta zerga administrazioa | 7.333.050,46 € | %1,76 | 7.809.765,11 € | %2,00 | 476.714,65 € | %6,50 |
| ZOR PUBLIKOA | | | | | | |
| Zor publikoa | 15.656.986,81 € | %3,76 | 15.943.448,64 € | %3,58 | 286.461,83 € | %1,83 |
| **GUZTIRA** | **416.260.408,47 €** | **%100** | **444.929.770,66 €** | **%100** | **28.669.362,19 €** | **%6,89** |

Banakatuago, aurrekontu programen arabera izandako aldaketak jaso ditugu.

% 25 baino hazkunde handiagoa: *Anoeta Kiroldegia* (% 437,26), eta *Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa*; azken horretan, kontu-sail bat % 78,69 hazi da, eta, horrez gain, 110.000 euroren kontu-sail berri bat sortu da. *Anoeta Kiroldegia* atalean izandako hazkundea Anoeta estadioaren erreformari dagokio, eta erakunde hauek egindako ekarpenekin estaliko da: Real Sociedad de Futbol klubak (bereziki), Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

% 25 baino gehiago handitu dira, baita ere, *Udal informazioko lurralde unitatea* (% 113,06), *Ezustekoak* (% 101,94), *Gobernu organoak* (% 53,63), *Giza eskubideak* (% 39,67), *Iraunkortasuna* (% 32,29), *Ekonomia garapena* (% 32,15), *Bide publikoak* (% 29,51) eta *Donostia Lagunkoia* (% 25,40) programak, eta *Hiri proiektua* (376.874,39 €) eta *Ekipamendu plana* (4.030.614,00 €) programa berriak.

Ostera, % 25etik gorako jaitsierak izan dituzte programa hauek: *Hiriburutza 2016* (desagertu egin da), *Agiritegia* (-% 56,23), *Ekialdeko distritua* (-% 48,09), *Eskola osasuna* (-% 40,15), *Ura eta saneamendua: zuzendaritza eta administrazioa* (-% 34,85) eta *Eskailerak, arrapalak eta igogailuak* (-% 30,59).

| Aurrekontu programak | 2017 | | 2018 | | Aldea | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | % | Guztira | % | Guztira | % |
| **OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK** | **184.346.024,50 €** | **%44,29** | **177.037.093,06 €** | **%39,79** | **- 7.308.931,44 €** | **-%3,96** |
| **Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna** | **48.556.192,09 €** | **%11,66** | **47.617.534,34 €** | **%10,70** | **- 938.657,75 €** | **-%1,93** |
| Udaltzaingoa | 22.612.752,87 € | %5,43 | 23.023.424,53 € | %5,17 | 410.671,66 € | %1,82 |
| Zirkulazioaren eta aparkalekuen antolamendua | 6.107.325,48 € | %1,47 | 6.333.092,61 € | %1,42 | 225.767,13 € | %3,70 |
| Eskailerak, arrapalak eta igogailuak | 2.195.912,92 € | %0,08 | 1.524.201,41 € | %0,34 | - 671.711,51 € | -%30,59 |
| Hiri mugikortasuna | 8.943.561,86 € | %2,15 | 9.034.093,51 € | %2,03 | 90.531,65 € | %1,01 |
| Herri babesa | 145.780,43 € | %0,04 | 177.436,95 € | %0,04 | 31.656,52 € | %21,72 |
| Prebentzio eta su itzaltze zerbitzua eta sorospena | 8.550.858,53 € | %2,05 | 7.525.285,33 € | %1,69 | - 1.025.573,20 € | -%11,99 |
| **Etxebizitza eta hirigintza** | **69.937.701,48 €** | **%16,80** | **64.148.069,32 €** | **%14,42** | **- 5.789.632,16 €** | **-%8,28** |
| Hirigintza | 29.918.492,13 € | %7,19 | 26.205.935,95 € | %5,89 | - 3.712.556,18 € | -%12,41 |
| Etxebizitza | 28.948.822,47 € | %6,95 | 26.246.973,06 € | %5,90 | - 2.701.849,41 € | -%9,33 |
| Eraikuntzen birgaitzea | 2.750.000,00 € | %0,66 | 2.750.000,00 € | %0,62 | - € | %0,00 |
| Bide publikoak | 2.674.968,66 € | %0,64 | 3.464.318,04 € | %0,78 | 789.349,38 € | %29,51 |
| Zolaketa eta asfaltatzea | 5.645.418,22 € | %1,36 | 5.480.842,27 € | %1,28 | - 164.575,95 € | -%2,92 |
| **Komunitate ongizatea** | **53.641.814,34 €** | **%12,89** | **52.729.964,98 €** | **%11,85** | **- 911.849,36 €** | **-%1,70** |
| Saneamendua | 4.504.452,99 € | %1,08 | 4.068.581,78 € | %0,91 | - 435.871,21 € | -%9,68 |
| Ura | 3.171.080,45 € | %0,76 | 3.647.465,61 € | %0,71 | 476.385,16 € | %15,02 |
| Ura eta saneamendua: zuzendaritza eta administrazioa | 1.152.401,58 € | %0,28 | 750.818,39 € | %0,17 | - 401.583,19 € | -%34,85 |
| Hiriko hondakin solidoen bilketa | 6.867.386,11 € | %1,65 | 6.999.062,95 € | %1,57 | 131.676,84 € | %1,92 |
| Hondakinen kudeaketa: San Marko | 2.494.558,26 € | %0,60 | 2.368.757,46 € | %0,53 | - 125.800,80 € | -%5,04 |
| Hondakinen tratatzea: San Marko | 9.518.499,82 € | %2,29 | 9.623.624,16 € | %2,16 | 105.124,34 € | %1,10 |
| Bide eta etxaurreen garbiketa | 13.592.527,42 € | %3,27 | 13.623.908,67 € | %3,06 | 31.381,25 € | %0,23 |
| Polloe | 1.743.140,18 € | %0,42 | 1.441.097,00 € | %0,32 | - 302.043,18 € | -%17,33 |
| Herri argiteria | 4.235.091,82 € | %1,02 | 4.398.389,73 € | %0,99 | 163.297,91 € | %3,86 |
| Saneamendua eta arazketa: Añarbe | 6.362.675,71 € | %1,53 | 5.808.259,23 € | %1,31 | - 554.416,48 € | -%8,71 |
| **Ingurumena** | **12.210.316,59 €** | **%2,93** | **12.541.524,42 €** | **%2,82** | **331.207,83 €** | **%2,71** |
| Ingurumena: zuzendaritza eta administrazioa | 352.108,09 € | %0,09 | 352.258,08 € | %0,08 | 149,99 € | %0,04 |
| Parkeak eta lorategiak | 6.707.720,44 € | %1,61 | 6.346.552,68 € | %1,43 | - 361.167,76 € | -%5,38 |
| Artikutza | 673.269,46 € | %0,16 | 693.605,68 € | %0,16 | 20.336,22 € | %3,02 |
| Kristina Enea | 520.000,00 € | %0,12 | 600.000,00 € | %0,13 | 80.000,00 € | %15,38 |
| Iraunkortasuna | 1.463.302,00 € | %0,35 | 1.935.840,39 € | %0,44 | 472.538,39 € | %32,29 |
| Hiriguneetako hots, argi eta atmosfera kutsaduraren aurkako babesa | 326.758,55 € | %0,08 | 278.798,90 € | %0,06 | - 47.959,65 € | -%14,68 |
| Hondartzak | 2.167.158,05 € | %0,52 | 2.334.468,69 € | %0,52 | 167.310,64 € | %7,72 |
| **BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETAK** | **28.599.981,92 €** | **%6,87** | **29.246.487,44 €** | **%6,57** | **646.505,52 €** | **%2,26** |
| **Erretiro pentsioak** | **24.000,00 €** | **%0,01** | **20.000,00 €** | **%0,00** | **- 4.000,00 €** | **-%16,67** |
| Klase pasiboak | 24.000,00 € | %0,01 | 20.000,00 € | %0,00 | - 4.000,00 € | -%16,67 |
| **Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk** | **943.492,38 €** | **%0,23** | **959.702,38 €** | **%0,22** | **16.210,00 €** | **%1,72** |
| Aldez aurretik erretiratzeko sariak | 943.492,38 € | %0,23 | 959.702,38 € | %0,22 | 16.210,00 € | %1,72 |
| **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** | **27.632.489,54 €** | **%6,64** | **28.266.785,06 €** | **%6,35** | **634.295,52 €** | **%2,30** |
| Gizarte Ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa | 832.133,26 € | %0,20 | 773.171,87 € | %0,17 | - 58.961,39 € | -%7,09 |
| Gizarte Zerbitzuguneak | 4.003.730,54 € | %0,96 | 4.016.041,94 € | %0,90 | 12.311,40 € | %0,31 |
| Lankidetza eta garapenerako heziketa | 1.488.585,71 € | %0,36 | 1.609.743,26 € | %0,36 | 121.157,55 € | %8,14 |
| Donostia Lagunkoia | 72.000,00 € | %0,02 | 90.287,00 € | %0,02 | 18.287,00 € | %25,40 |
| Apartamentu tutelatuak | 1.524.915,77 € | %0,37 | 1.544.614,37 € | %0,35 | 19.698,60 € | %1,29 |
| Gizarte abegi etxea | 1.227.530,93 € | %0,29 | 1.174.924,74 € | %0,26 | - 52.606,19 € | -%4,29 |
| Gizarteratzea | 3.748.177,58 € | %0,79 | 3.794.359,17 € | %0,85 | 46.181,59 € | %1,23 |
| Adin txikikoen prebentzioa eta familia | 2.940.395,38 € | %0,71 | 3.133.985,20 € | %0,70 | 193.589,82 € | %6,58 |
| Adineko pertsonen sustapena | 345.742,88 € | %0,08 | 360.413,10 € | %0,08 | 14.670,22 € | %4,24 |
| Zaharren egoitzak | 844.112,88 € | %0,20 | 825.000,00 € | %0,19 | - 19.112,88 € | -%2,26 |
| Etxez etxeko laguntza | 7.704.216,57 € | %1,85 | 7.646.054,19 € | %1,72 | - 58.162,38 € | -%0,75 |
| Gizarte larrialdietarako laguntzak | 2.153.287,00 € | %0,52 | 2.400.000,00 € | %0,54 | 246.713,00 € | %11,46 |
| Berdintasuna | 747.661,04 € | %0,18 | 898.190,22 € | %0,20 | 150.529,18 € | %20,13 |
| **LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA** | **77.853.111,77 €** | **%18,70** | **104.016.572,35 €** | **%23,38** | **26.163.460,58 €** | **%33,61** |
| **Osasuna** | **2.213.841,18 €** | **%0,53** | **2.275.198,31 €** | **%0,51** | **61.357,13 €** | **%2,77** |
| Komunak | 464.061,00 € | %0,11 | 534.632,00 € | %0,12 | 70.571,00 € | %15,21 |
| Eskola osasuna | 171.213,40 € | %0,04 | 102.462,99 € | %0,04 | - 68.750,41 € | -%40,15 |
| Osasun publikoa eta animalien ongizatea | 707.340,26 € | %0,18 | 764.682,48 € | %0,17 | 57.342,22 € | %8,11 |
| Sorospen etxea | 255.669,52 € | %0,06 | 255.329,84 € | %0,06 | - 339,68 € | -%0,13 |
| La Perla balnearioa | 615.557,00 € | %0,15 | 618.091,00 € | %0,14 | 2.534,00 € | %0,41 |
| **Hezkuntza** | **12.304.368,63 €** | **%2,96** | **13.507.302,14 €** | **%3,04** | **1.202.933,51 €** | **%9,78** |
| Hezkuntza: zuzendaritza eta administrazioa | 573.682,60 € | %0,14 | 575.322,71 € | %0,17 | 1.640,11 € | %0,29 |
| Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua | 7.010.697,23 € | %1,68 | 7.401.108,78 € | %1,66 | 390.411,55 € | %5,57 |
| Udalaren musika eta dantza eskola | 3.355.150,31 € | %0,81 | 3.803.030,21 € | %0,85 | 447.879,90 € | %13,35 |
| Heziketarako programak | 297.508,56 € | %0,07 | 297.941,22 € | %0,07 | 432,66 € | %0,15 |
| Giza eskubideak | 717.243,61 € | %0,17 | 1.001.796,83 € | %0,23 | 284.553,22 € | %39,67 |
| Kultur aniztasuna | 350.086,32 € | %0,08 | 428.102,39 € | %0,10 | 78.016,07 € | %22,28 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Kultura** | **39.985.651,24 €** | **%9,61** | **39.439.170,17 €** | **%8,86** | **- 546.481,07 €** | **-%1,37** |
| Kulturaren arloko administrazio orokorra: Donostia Kultura | 28.525.358,95 € | %6,85 | 28.561.816,00 € | %7,34 | 36.457,05 € | %0,13 |
| Udalaren musik-a eta datza-eskola (Liburutegia) | 134.415,82 € | %0,03 | 146.312,72 € | %0,03 | 11.896,90 € | %8,85 |
| Tabakalera | 1.600.000,00 € | %0,38 | 1.630.000,00 € | %0,37 | 30.000,00 € | %1,88 |
| Hiriburutza 2016 | 964.317,82 € | %0,23 | - € | %0,00 | - 964.317,82 € | -%100,00 |
| Kultura: sustatzea eta bultzatzea | 1.560.000,00 € | %0,37 | 1.710.000,00 € | %0,38 | 150.000,00 € | %9,62 |
| Udalaren musik-a eta datza-eskola (Txistulariak eta Emusik2016) | 552.127,10 € | %0,13 | 601.747,58 € | %0,14 | 49.620,48 € | %8,99 |
| Euskara | 2.648.092,65 € | %0,64 | 2.702.581,66 € | %0,61 | 54.489,01 € | %2,06 |
| Zahar etxeak | 1.738.828,91 € | %0,42 | 1.895.486,11 € | %0,43 | 156.657,20 € | %9,01 |
| Gazteria | 2.262.509,99 € | %0,54 | 2.191.226,10 € | %0,49 | - 71.283,89 € | -%3,15 |
| **Kirola** | **23.349.250,72 €** | **%5,61** | **48.794.901,73 €** | **%10,97** | **25.445.651,01 €** | **%108,98** |
| Kirola: zuzendaritza eta administrazioa | 3.113.715,53 € | %0,75 | 5.563.918,72 € | %1,25 | 2.450.203,19 € | %78,69 |
| Kirola: zuzendaritza eta administrazioa | - € | %0,00 | 110.000,00 € | %0,02 | 110.000,00 € | %100,00 |
| Donostia Kirola | 2.577.061,93 € | %0,62 | 2.779.639,13 € | %0,62 | 202.577,20 € | %7,86 |
| Kirol instalakuntzak | 3.624.900,00 € | %0,87 | 2.975.100,00 € | %0,67 | - 649.800,00 € | -%17,93 |
| Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola) | 8.597.369,79 € | %2,07 | 8.159.747,71 € | %1,83 | - 437.622,08 € | -%5,09 |
| Anoeta Kiroldegia | 5.436.203,47 € | %1,31 | 29.206.496,17 € | %6,56 | 23.770.292,70 € | %437,26 |
| **JARDUKETA EKONOMIKOAK** | **74.226.983,89 €** | **%17,83** | **76.663.967,86 €** | **%17,23** | **2.436.983,97 €** | **%3,28** |
| **Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainen administrazio orokorra** | **19.126.998,92 €** | **%4,59** | **20.173.216,46 €** | **%4,53** | **1.046.217,54 €** | **%5,47** |
| Azokak | 5.450,00 € | %0,00 | 5.450,00 € | %0,00 | - € | %0,00 |
| Donostia Turismoa | 3.290.686,19 € | %0,79 | 3.490.686,19 € | %0,78 | 200.000,00 € | %6,08 |
| La Sirena aterpetxea | 472.272,03 € | %0,11 | 508.663,40 € | %0,11 | 36.391,37 € | %7,71 |
| Uliako aterpetxea | 305.022,09 € | %0,07 | 320.308,48 € | %0,07 | 15.286,39 € | %5,01 |
| Aterpetxeak: zuzendaritza eta administrazioa | 113.663,25 € | %0,03 | 112.111,39 € | %0,11 | - 1.551,86 € | -%1,37 |
| Garapen ekonomikoa | 1.399.914,53 € | %0,34 | 1.850.000,00 € | %0,42 | 450.085,47 € | %32,15 |
| Donostiako Sustapena | 13.539.990,83 € | %3,25 | 13.885.997,00 € | %3,12 | 346.006,17 € | %2,56 |
| **Garraio publikoa** | **36.739.011,80 €** | **%8,83** | **37.355.268,34 €** | **%8,40** | **616.256,54 €** | **%1,68** |
| Garraioaren arloko administrazio orokorra | 171.621,00 € | %0,04 | 187.347,00 € | %0,04 | 15.726,00 € | %9,16 |
| Bidaiarien taldekako hiri garraioa | 9.000,00 € | %0,00 | 9.000,00 € | %0,00 | - € | %0,00 |
| Bidaiarien beste garraioa | 31.000,00 € | %0,01 | 31.000,00 € | %0,01 | - € | %0,00 |
| DBUS | 36.527.390,80 € | %8,78 | 37.127.921,34 € | %8,34 | 600.530,54 € | %1,64 |
| **Azpiegiturak** | **18.253.173,17 €** | **%4,39** | **19.036.816,96 €** | **%4,28** | **783.643,79 €** | **%4,29** |
| Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa | 1.732.418,30 € | %0,47 | 1.767.557,98 € | %0,40 | 35.139,68 € | %2,03 |
| Proiektu eta obrak | 12.416.353,85 € | %2,98 | 13.253.389,85 € | %2,98 | 837.036,00 € | %6,74 |
| Uraren hornikuntza: Añarbe | 4.104.401,02 € | %0,99 | 4.015.869,13 € | %0,90 | - 88.531,89 € | -%2,16 |
| **Beste jarduketa ekonomiko batzuk** | **107.800,00 €** | **%0,03** | **98.666,10 €** | **%0,02** | **- 9.133,90 €** | **-%8,47** |
| Kontsumitzailearen udal bulegoa | 107.800,00 € | %0,03 | 98.666,10 € | %0,02 | - 9.133,90 € | -%8,47 |
| **JARDUKETA OROKORRAK** | **35.577.319,58 €** | **%8,55** | **42.022.201,31 €** | **%8,35** | **6.444.881,73 €** | **%18,12** |
| **Gobernu organoak** | **4.917.416,81 €** | **%1,18** | **6.278.010,09 €** | **%1,41** | **1.360.593,28 €** | **%27,67** |
| Udal talde politikoak | 3.176.488,65 € | %0,76 | 3.226.582,72 € | %0,73 | 50.094,07 € | %1,58 |
| Gobernu organoak | 1.740.928,16 € | %0,42 | 2.674.552,98 € | %0,60 | 933.624,82 € | %53,63 |
| Hiri proiektua | - € | %0,00 | 376.874,39 € | %0,08 | 376.874,39 € | %100,00 |
| **Administrazio orokorra** | **23.326.852,31 €** | **%5,24** | **27.934.426,11 €** | **%6,28** | **4.607.573,80 €** | **%19,75** |
| Komunikazioak | 611.158,07 € | %0,15 | 644.977,36 € | %0,14 | 33.819,29 € | %5,53 |
| Eraikinak | 2.039.349,50 € | %0,49 | 2.502.553,45 € | %0,51 | 463.203,95 € | %22,71 |
| Informatika | 8.146.931,66 € | %1,96 | 7.059.391,48 € | %1,59 | - 1.087.540,18 € | -%13,35 |
| Ekialdeko distritua | 401.846,61 € | %0,10 | 208.583,20 € | %0,05 | - 193.263,41 € | -%48,09 |
| Lehendakaritza | 1.102.120,02 € | %0,26 | 1.081.896,65 € | %0,24 | - 20.223,37 € | -%1,83 |
| Agiritegia | 491.138,36 € | %0,12 | 214.959,83 € | %0,05 | - 276.178,53 € | -%56,23 |
| Giza baliabideak: zuzendaritza eta administrazioa | 3.091.392,44 € | %0,74 | 2.998.662,82 € | %0,67 | - 92.729,62 € | -%3,00 |
| Idazkaritza orokorra eta lege zerbitzuak | 1.241.666,60 € | %0,30 | 1.231.553,31 € | %0,28 | - 10.113,29 € | -%0,81 |
| Barne zerbitzu orokorrak | 948.755,04 € | %0,23 | 961.805,40 € | %0,22 | 13.050,36 € | %1,38 |
| Itzulpen bulegoa | 388.413,87 € | %0,09 | 392.763,53 € | %0,09 | 4.349,66 € | %1,12 |
| Ibilgailuak | 818.835,01 € | %0,20 | 780.226,47 € | %0,18 | - 38.608,54 € | -%4,72 |
| Ekipamendu plana | - € | %0,00 | 4.030.614,00 € | %0,91 | 4.030.614,00 € | %100,00 |
| Udaleko informazio bulegoa | 239.686,74 € | %0,06 | 510.671,57 € | %0,11 | 270.984,83 € | %113,06 |
| Herritarren parte hartzea | 786.376,20 € | %0,19 | 828.603,20 € | %0,19 | 42.227,00 € | %5,37 |
| Herritarrenganako arreta | 1.687.472,59 € | %0,41 | 1.797.930,38 € | %0,40 | 110.457,79 € | %6,55 |
| Elecciones | - € | %0,00 | - € | %0,00 | - € | Err:520 |
| Ezustekoak | 1.331.709,60 € | %0,32 | 2.689.233,46 € | %0,60 | 1.357.523,86 € | %101,94 |
| **Finantza eta zerga administrazioa** | **7.333.050,46 €** | **%1,76** | **7.809.765,11 €** | **%2,00** | **476.714,65 €** | **%6,50** |
| Politika ekonomikoa eta fiskala | 3.670.682,91 € | %0,88 | 3.835.276,69 € | %0,86 | 164.593,78 € | %4,48 |
| Tributu sistemaren kudeaketa | 3.662.367,55 € | %0,88 | 3.974.488,42 € | %1,00 | 312.120,87 € | %8,52 |
| **ZOR PUBLIKOA** | **15.656.986,81 €** | **%3,76** | **15.943.448,64 €** | **%3,58** | **286.461,83 €** | **%1,83** |
| **Zor publikoa** | **15.656.986,81 €** | **%3,76** | **15.943.448,64 €** | **%3,58** | **286.461,83 €** | **%1,83** |
| Zor publikoa | 15.656.986,81 € | %3,76 | 15.943.448,64 € | %3,58 | 286.461,83 € | %1,83 |
| GUZTIRA | **416.260.408,47 €** | **%100** | **444.929.770,66 €** | **%100** | **28.669.362,19 €** | **%6,89** |

## 2018KO INBERTSIOAK

2018rako aurreikusitakoaren arabera, **110.796.957,24 euroren inbertsioak** egingo dira. Aurrekontu programen arabera, *Anoeta Kiroldegia* (% 25,94), *Hirigintza* (% 19,53), *Etxebizitza* (% 14,26) eta *Proiektu eta obrak* (% 10,03) ataletan egingo dira inbertsiorik handienak.

Eskura dugun informazioarekin ez dugu aztertzerik inbertsio horiek zer eragin izango duten genero aldetik. Beraz, etorkizunean informazio gehiago izan nahiko genuke aurreikusitako inbertsioen inguruan. Alde horretatik, funtsezkoa iruditzen zaigu deskribapenean zehaztea inbertsioak zer premiari erantzuten dion, hala genero eraginaren aurretiazko azterketa egiteko nola, gero, proposatutako inbertsioen arteko lehenespenak balioztatzeko.

# 7. AZTERTUTAKO PROGRAMAK

106 aurrekontu programetatik **37** (% 34,9) xehetasun handiagoz aztertu ditugu, **udal aurrekontuaren % 57,77**.

| **Aurrekontu programak** | **2018** |
|---|---|
| Udaltzaingoa | 23.023.424,53 € |
| Hiri mugikortasuna | 9.034.093,51 € |
| Hirigintza | 26.205.935,95 € |
| Etxebizitza | 26.246.973,06 € |
| Bide publikoak | 3.464.318,04 € |
| Herri argiteria | 4.398.389,73 € |
| Parkeak eta lorategiak | 6.346.552,68 € |
| Hondartzak | 2.334.468,69 € |
| Gizarte Ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa | 773.171,87 € |
| Gizarte Zerbitzuguneak | 4.016.041,94 € |
| Lankidetza eta garapenerako heziketa | 1.609.743,26 € |
| Apartamentu tutelatuak | 1.544.614,37 € |
| Gizarte abegi etxea | 1.174.924,74 € |
| Gizarteratzea | 3.794.359,17 € |
| Adin txikikoen prebentzioa eta familia | 3.133.985,20 € |
| Adineko pertsonen sustapena | 360.413,10 € |
| Zaharren egoitzak | 825.000,00 € |
| Etxez etxeko laguntza | 7.646.054,19 € |
| Gizarte larrialdietarako laguntzak | 2.400.000,00 € |
| Berdintasuna | 898.190,22 € |
| Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua | 7.401.108,78 € |
| Udalaren musika eta dantza eskola | 3.803.030,21 € |
| Heziketarako programak | 297.941,22 € |
| Giza eskubideak | 1.001.796,83 € |
| Kultur aniztasuna | 428.102,39 € |
| Kulturaren arloko administrazio orokorra: Donostia Kultura | 28.561.816,00 € |
| Udalaren musik-a eta datza-eskola (Liburutegia) | 146.312,72 € |
| Udalaren musik-a eta datza-eskola (Txistulariak eta Emusik2016) | 601.747,58 € |
| Gazteria | 2.191.226,10 € |
| Kirola: zuzendaritza eta administrazioa | 5.563.918,72 € |
| Donostia Kirola | 2.779.639,13 € |
| Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola) | 8.159.747,71 € |
| Donostiako Sustapena | 13.885.997,00 € |
| DBUS | 37.127.921,34 € |
| Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa | 1.767.557,98 € |
| Proiektu eta obrak | 13.253.389,85 € |
| Herritarren parte hartzea | 828.603,20 € |
| **Guztira aztertutako aurrekontu programak** | **257.030.511,01 €** |
| **Guztira 2018ko aurrekontua** | **444.929.770,66 €** |
| GUZTIRA | **%57,77** |

## 7.1. Babes eta sustapen sozialeko jarduketak

### ●BERDINTASUNA

**Berdintasuna programa**, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, kasu berezia da, ia aurrekontuaren % 100 erabiltzen baitute modu batean edo bestean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

Berdintasunera zuzendutako programa espezifiko bat badagoenez, betetzen da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4eko otsailaren 2005ko 18/14 Legeak 14. artikuluan ezartzen duen **legezko agindua**:

> *<<Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan>>.*

Berdintasunerako politiken ikusp85egi dualak proposatzen du, batetik, espezifikoki bideratzea baliabideak berdintasunera, ekintza positiboko politikak sustatu ahal izateko, eta, bestetik, beste programa batzuetara ere bideratzea baliabideak, zeharkakotasuna eta politika sektoriala lantzeko.

Programa hori garatzeko, 898.190,22 euro izango dira 2018an. 2**017koarekin alderatuta, % 20,13 handitu da** kontu-saila (150.529,18 € gehiago); zehazki, **udal aurrekontuaren** % 0,18 izatetik **% 0,20** izatera pasatu da. Hala, 2015eko udal aurrekontuetan programa horrek zuen mailara iritsi da.

Hurrengo urteetako udal aurrekontuetan, komeni da maila hori handitzea, edo, gutxienez, maila horri eustea.

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 412.099,29 | 45,88 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 273.090,93 | 30,41 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 128.000,00 | 14,25 |
| 6 | Inbertsio errealak | 85.000,00 | 9,46 |
| GUZTIRA | | 898.190,22 | 100,00 |

## 2. kapitulua

Berdintasuneko 2. kapitulua **% 42,2 handitu da 2018ko aurrekontuan**, 191.999,80 eurotik 273.090,93 eurora.

Esan bezala, 2. kapituluko gehiena (226.99 kontu-saila) udalaren berdintasunerako politikari bultzada emateko jardueretara bideratuko da, eta **gehien nabarmentzen diren gastuak emakumeak ahalduntzeko eta indarkeria sexistaren aurkako ekintzetarako bideratutakoak dira (kontu-sailaren % 43,3 eta % 31,7, hurrenez hurren)**.

Aurrekontua handitzearen xedea da **Emakumearen Etxean zerbitzuak ematen dituzten profesionalen ordainsariak homogeneizatzea** eta **III. Berdintasun Planaren ebaluazioa egitea**, bai eta Donostian emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko **diagnosia eguneratzea** ere, beharrezkoak baitira 2019an berdintasun plan berria egiteko.

| Kontu-saila | Gastuen azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 226.99 | Eraldatze feministarako jarduerak | 211.140,00 |
| 226.99.01 | Indarkeria sexistaren aurkako ekintzak | 67.000,00 |
| 226.99.02 | Ikerketa lanak eta formazioa | 6.000,00 |
| 226.99.03 | Emakumeen ahalduntzea | 91.440,00 |
| 226.99.04 | Hirian puntu kritikoei dagokienez hobekuntzak egiteko partaidetza prozesua | 8.200,00 |
| 226.99.05 | Zaintza partekatua | 2.500,00 |
| 226.99.07 | III. Berdintasun Plana: inplementatu eta sistematizatu | 36.000,00 |

## 4. kapitulua

Transferentzia arruntei dagokienez, bi kontu-sail daude aurrekontuan; lehenaren barruan, emakumeen elkarteentzako eta berdintasuna sustatzen duten elkarte mistoentzako diru laguntzak sartzen dira, eta bigarrenaren barruan, Emakumeen Etxearen mantentze-lanak; hitzarmen bidez egingo dira lanok eta 46.000 euroren kontu-saila izango da horretarako.

| Kontu-saila | Gastuen azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 481.01 | Irabazi asmorik gabeko erakundeei diru laguntzak | 82.000,00 |
| 481.02 | Irabazi asmorik gabeko erakundeei aparteko diru laguntzak | 46.000,00 |
| | **4. kapituluaren guztizkoa** | **128.000,00** |

## 6. kapitulua

Inbertsioen kapituluan, 80.000 euroren kontu-sail bat dago hiriko zenbait puntu kritikori dagokionez hobekuntzak egiteko, eta beste 5.000 euro, Emakumeen Etxeko mantentze-lanetarako.

| Kontu-saila | Gastuen azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 601.01 | Hiriko zenbait puntu kritikoren hobekuntza | 80.000,00 |
| 622.99.01 | Emakumeen Etxeko mantentze-lanak | 5.000,00 |
| | **6. kapituluaren guztizkoa** | **85.000,00** |

Bi inbertsio horiek garrantzitsuak dira genero ikuspegitik. *L*ehenengoa, eragin zuzena duelako indarkeriaren prebentzioan, *(3) Ingurune iraunkorra eta indarkeriarik gabekoa* III. Berdintasun Planeko esku hartze lerroan. Bigarrena, eragin zuzena duelako *(6) Emakumeen parte hartze soziopolitikoa eta ekonomikoa* III. Berdintasun Planeko esku hartze lerroan.

## DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Emakumeen Etxea askotariko emakumeen topaketarako, formaziorako, hausnarketarako eta ekintzarako gune bat da; kudeaketa eredu mistoa edo partekatua du, mugimendu feministaren eta Donostiako Udaleko Berdintasun Sailaren artean kudeatzen baitute.

Emakumeen Etxeko 2016-2017 aldiko memorian, **Donostiako Udalaren ekarpen ekonomikoa dago jasota, 176.262,71 euro**, hain zuzen. Kopuru horrez gain, Udalak udal langile bat jartzen du Etxearen koordinazio eta dinamizazio lanak egiteko, lanaldi osoko dedikazioarekin.

Aurretiko txostenetan jasotzen zen bezala, **Emakumeen Etxea jartzeko beste leku bat prestatu behar da**, sarbide errazekoa, eta bertan ematen diren zerbitzu eta jardueretarako instalazio egokiak izango dituena. 2. kapituluko kontu-sailarekin ezinezkoa da hori.

## Aurrekontua

Hurrengo taulan jaso dugu Donostiako Udalak Emakumeen Etxeari egiten dion ekarpen ekonomikoa. Horrez gain, udaleko langile bat dago Emakumeen Etxeko koordinazio eta dinamizazio lanak egiten lanaldi osoan.

### 1. Hitzarmena Emakumeen Etxea Elkartearekin

Hitzarmena Emakumeen Etxea espazioa dinamizatzeko arratsaldetan ..................... 46.000,00

### 2. Ikastaroak, ahalduntze taldeak eta zerbitzuak

Autodefentsa ikastaroak ..................... 7.061,89
Lahia Nahia: formazioa berdintasunean eta indarkeria matxistaren prebentzioa ..................... 1.100,00
Mujeres por una vida libre de violencia ..................... 8.500,00
Kultura aniztasuneko taldea ..................... 8.750,00
Literatura taldeak: Iratxe Retolaza eta Ventaneras ..................... 3.800,00
Etxeko langileen aholkularitza zerbitzua ..................... 9.770,00
Udako ikastaroak ..................... 2.033,46

### 3. Eraikinaren mantenua

Gastu korrontea (telefonoa, garbiketa, fotokopiak, argindarra, komunitatea, konponketa txikiak) ..................... 63.166,36
Inbertsioak (zoruaren aldaketa, margoketa, instalazio elektrikoa) ..................... 14.068,97

### 4. Komunikazioa

Argazkiak eta bideoa ..................... 1.865,15
Egitarauak: diseinua, maketazioa eta inprenta ..................... 3.800,00
Urteko memoriaren argitalpena: diseinua eta inprenta ..................... 5.211,88
Emakumeen Etxeko festa: katering ..................... 1.135,00

**GUZTIRA** **176.262,71**

Ekarpen honez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere ekarpen garrantzitsua egiten dio Etxeari: 40.000 euroko diru laguntza ematen dio Emakumeen Etxea Elkarteari, eta horri esker egiten dira emakumeen zine ikustaldia Antzoki Zaharrean, ikastaroak, tailerrak, jardunaldiak, hitzaldiak, batukada, denbora bankua, difusio kanpaina, urteroko festa eta abar.

Iturria: Emakumeen Etxeko 2016-2017 aldiko memoria.

| | | |
|---|---|---|
| GENERO GARRANTZIA | Eragina-gaitasuna analisia, 2013 | 31 |
| | Aurrekontu programen erlazioa III. Berdintasun Planeko esku hartze lerroekin | 1L. Gobernantza<br>2L. Zaintza erantzunkideak<br>3L. Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea<br>4L. Jaiak eta kultura ez sexista<br>5L. Ohitura osasungarriak eta kirola<br>6L. Emakumeen parte hartze soziopolitikoa eta ekonomikoa<br>7L. Autonomia eta norberaren boterea |
| | Eragina gizarte talde nagusietan | Adineko emakumeak<br>Helduak<br>Neskatoak eta nerabeak<br>Behar bereziak dituzten emakumeak |

<table>
<tr><td rowspan="12">GENERO ADIERAZLEAK</td><td rowspan="2">Diru laguntzak</td><td>Diruz lagundutako proiektuen kopurua</td><td>35</td></tr>
<tr><td>Diruz lagundutako elkarteen kopurua</td><td>30</td></tr>
<tr><td rowspan="10">Emakumeen Etxea</td><td>Bazkideak</td><td>843</td></tr>
<tr><td>Bisitariak</td><td>33789</td></tr>
<tr><td>Biluzik mundura</td><td>91</td></tr>
<tr><td>Aholkularitza juridikoa eta gizarte esku hartzea</td><td>410</td></tr>
<tr><td>Norbanakoaren jabekuntzarako gunea</td><td>352</td></tr>
<tr><td>Etxeko langileentzako aholkularitza</td><td>141</td></tr>
<tr><td>“Igualate” ikasketak homologatzeko kanpaina</td><td>211</td></tr>
<tr><td>Indarkeriarik gabeko bizitza baten aldeko emakumeen gunea</td><td>165</td></tr>
<tr><td>Aholkularitza, laguntza taldea eta autolaguntza</td><td>47</td></tr>
<tr><td>Formazioa</td><td>357</td></tr>
</table>

## ●LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO HEZIKETA

Lankidetza eta garapenerako heziketa programak, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartuak, 1.609.743,26 euro izango ditu 2018an, **udal aurrekontuaren % 0,36**. 2017an, programa horretarako 1.488.585,71 euro zeuden (udal aurrekontuaren ehuneko bera); beraz, % 8,14 handitu da programaren aurrekontua.

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 191.385,06 | 11,89 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 133.175,00 | 8,27 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 1.285.183,20 | 79,84 |
| GUZTIRA | | 1.609.743,26 | 100,00 |

**Lankidetza eta garapenerako heziketa** da bere jardueran genero ikuspegia gehien eta ondoen sartua duen programetako bat; izan ere, **programa** hori kudeatzen duen zuzendaritzak giza garapen iraunkorrerako lankidetza eta hezkuntzako plan gidari bat du, eta, bertan zehazten denez, **genero ekitatea da printzipio gidarietako bat, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna, berriz, zeharkako ildo bat**.

## 2. kapitulua

Lankidetza eta garapenerako heziketa programako 2. kapitulua 133.175,00 eurorena da 2018an; 2017an 114.211,35 eurorena izan zen, eta, beraz, **% 16,6 handitu da**.

84.375,00 euroren 226.99 kontu-saila **lankidetza eta garapenerako heziketaren sentsibilizatzeko proiektuetara bideratu da**. Donostia Munduen Artean nabarmentzen da genero garrantziaren aldetik.

## 4. kapitulua

Programa honetako gasturik garrantzitsuena 4. kapituluan dago, 1.285.183,20 euro gorde baitira **lankidetzako eta garapeneko proiektuak sustatzeko diru laguntza eta hitzarmenetarako**.

| Kontu-saila | Gastuen azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 481.01 | Lankidetza proiektuetarako diru laguntzak | 633.748,00 |
| 481.02 | Sentsibilizazio eta garapenerako heziketa proiektuetarako diru laguntzak | 286.073,79 |
| 481.03 | Lankidetzako proiektuekin hitzarmenak | |
| 481.04 | Sentsibilizazio eta garapenerako heziketa hitzarmenak | 41.416,21 |
| 481.05 | Larrialdi-laguntzara zuzendutako diru laguntza lerro berria | 52.338,58 |
| | **4. kapituluaren guztizkoa** | **1.285.183,20** |

481.01 kontu-saila da handiena, 633.748,00 euro bideratu baitira **kanpoko lankidetza proiektuak diruz laguntzera**. **Diru laguntzak arautzeko oinarriek berdintasunerako klausula espezifikoak dituzte eta** diruz lagundutako proiektuak planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko fase guztietan **sartzen dute genero ikuspegia**. 2017. urtearekin alderatuta, % 11,0 handitu da (62.700,78 €).

LANKIDETZA PROIEKTUAK. 2017KO ONURADUNAK

| Elkartea | Proiektua | Emakumeak | | Gizonak | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Alboan Fundazioa | Fortalecido el tejido asociativo del Municipio de Ixcán, para fomentar una participación comunitaria efectiva y con equidad en la resolución pacífica de conflictos sociales, de género y territoriales. | 628 | 68,0% | 295 | 32,0% | 924 |
| Asamblea de Cooperación por la Paz. | Promover la igualdad de género y empoderamiento socio-económico de las mujeres en el Territorio Ocupado Palestino. | 16 | 76,2% | 5 | 23,8% | 22 |
| Brigadas internacionales de Paz | Acompañamiento y presencia internacional para la protección integral de personas defensoras de Derechos Humanos y comunidades desplazadas en Colombia. | 46.993 | 51,2% | 44.743 | 48,8% | 91.737 |
Nolanahi ere, 2018rako aurreikusita dago erakundearen kontabilitate analitikoaren hobekuntza, zeharkako arloekin lotutako gastuaren analisiaren laugarren aldagaia aplikatuz, horrela **genero inpaktu positiboa duten aurrekontuetako kontu-sailak** (berdintasunerantz aurrera egiteko eta desberdintasunak murrizteko lagungarriak direnak) **identifikatu** ahal izateko.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| GENERO GARRANTZIA | Eragina-gaitasuna analisia, 2013. | Zehaztugabea | | |
| | Aurrekontu programen erlazioa III. Berdintasun Planeko esku hartze lerroekin | 4L. Jaiak eta kultura ez sexista<br>6L. Emakumeen parte hartze soziopolitikoa eta ekonomikoa<br>7L. Autonomia eta norberaren boterea | | |
| | Eragina gizarte talde nagusietan | Adinekoak<br>Helduak<br>Haurrak eta nerabeak | | |
| GENERO ADIERAZLEAK | Erabiltzaileak | DK-ko bazkide diren pertsonak | E | % 59,8 |
| | | | G | % 40,2 |
| | | DK-ko ikastaroetako ikasleak | E | % 74,0 |
| | | | G | % 25,0 |
| | Festak | 2017ko Kontxako estropadak. Sarien indizea (sarien guztizkoa emakumeetan / sarien guztizkoa gizonetan) | 0,83 | |
| | | Danborradak | Mix | % 92,6 |
| | | | E | % 0,7 |
| | | | G | % 6,7 |
| | | Inauteriak | E | % 83,6 |
| | | | G | % 16,4 |
| | Donostia Kultura Berdintasun plana | I. Berdintasun plana | | |
| | Berdintasunerako kontu-sail espezifikoa | 2017. Exekuzio maila | % 151,8 | |
| | | 2018 | 31.600,00 € | |

## ●MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA
## MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (LIBURUTEGIA)
## MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (TXISTULARIAK)

Musika eta Dantza Eskola udalaren erakunde autonomiaduna da. Irakaskuntza ez-arautuaren helburuak bere egiten ditu kulturaren sorkuntzari, kritikari eta hedapenari begira, musika eta dantza diziplinen alor espezifikoan, lehentasunezkotzat hartuta.

Haren eginkizunak dira ikasketa antolatzea, irakaskuntza bideratzea eta Ikasketa Planean sartutako diziplinen ikerketa garatzea, bai eta bere alorreko zerbitzu publikoa emateari berez dagokion administrazio kudeaketa ere.

**2015/2016 ikasturtean**, eskolak 1.870 **ikasle** zituen, horietatik **% 52,7, emakumeak**. Aldaketak egon diren arren, generoaren araberako espezialitate estereotipatuak errepikatzen eta mantentzen dira: emakumeak nagusitzen dira koru kantuan (% 75,6), zeharkako flautan (% 74,6), biolan (% 82,4), oboen (% 72,7), dantza klasikoan (% 91,4), pianoan (% 69)... eta gizonak nagusitzen dira tronpan (% 80), tronpetan (% 83,6), tronboian (% 82,9), tuban (% 100), baxu elektrikoan (% 83,3), baterian (% 79,4)…

2015-2016 IKASTURTEA

| ESPEZIALITATEAK | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Zbk | %G | Zbk | %G |
| Ikasle guztira | 1.870 | 985 | 52,7% | 885 | 47,3% |
| Matrikula guztira | 1.979 | 1.053 | 53,2% | 926 | 46,8% |
| Kontaktu | 523 | 294 | 56,2% | 229 | 43,8% |
| Kantu korala | 156 | 118 | 75,6% | 38 | 24,4% |
| Zeharkako flauta | 63 | 47 | 74,6% | 16 | 25,4% |
| Oboea | 22 | 16 | 72,7% | 6 | 27,3% |
| Klarinetea | 108 | 51 | 47,2% | 57 | 52,8% |
| Fagota | 8 | 3 | 37,5% | 5 | 62,5% |
| Tronpa | 25 | 5 | 20,0% | 20 | 80,0% |
| Trompeta | 67 | 11 | 16,4% | 56 | 83,6% |
| Tronboia | 35 | 6 | 17,1% | 29 | 82,9% |
| Tuba | 6 | 0 | 0,0% | 6 | 100,0% |
| Perkusioa | 35 | 8 | 22,9% | 27 | 77,1% |
| Biolina | 84 | 57 | 67,9% | 27 | 32,1% |
| Biola | 34 | 28 | 82,4% | 6 | 17,6% |
| Violoncello | 34 | 21 | 61,8% | 13 | 38,2% |
| Kontrabaxua | 11 | 4 | 36,4% | 7 | 63,6% |
| Moko-xirula | 9 | 6 | 66,7% | 3 | 33,3% |
| Saxofoia | 67 | 18 | 26,9% | 49 | 73,1% |
| Bombardinoa | 3 | 2 | 66,7% | 1 | 33,3% |
| Txistu | 29 | 10 | 34,5% | 19 | 65,5% |
| Trikitia | 33 | 21 | 63,6% | 12 | 36,4% |
| Dantza | 35 | 32 | 91,4% | 3 | 8,6% |
| Pianoa | 261 | 180 | 69,0% | 81 | 31,0% |
| Akordeoia | 19 | 6 | 31,6% | 13 | 68,4% |
| Gitarra | 40 | 16 | 40,0% | 24 | 60,0% |
| Bak. talde instrumental | 116 | 53 | 45,7% | 63 | 54,3% |
| Baxu elektrikoa | 30 | 5 | 16,7% | 25 | 83,3% |
| Bateria | 63 | 13 | 20,6% | 50 | 79,4% |
| Gitarra elektrikoa | 34 | 8 | 23,5% | 26 | 76,5% |
| Teklatuak | 29 | 14 | 48,3% | 15 | 51,7% |

Musika eta Dantza Eskolak Udalaren III. Berdintasun Plana ezartzeko sailarteko Batzorde Teknikoan parte hartzen du. Eta barruko Berdintasun Talde bat eratu dute, berdintasunari zeharkakotasunez heltzeko, beren kudeaketan eta zerbitzu ematean.

**Musika Eskolako aurrekontua 2018rako 4.551.090,51 euro da.** Udal aurrekontuen hiru programa barne hartzen ditu: Udal Musika eta Dantza Eskola, Musika eta Dantza Eskola (Liburutegia), eta Musika eta Dantza Eskola (Txistulariak eta Emusik2016). 2017an, aurrekontua 4.041.693,23 euro izan zen; beraz, aurten 509.397,28 euro (% 12,6) igo da.

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 3.875.945,71 | 85,17 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 570.294,80 | 12,53 |
| 3 | Finantza gastuak | 150,00 | 0,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 1.200,00 | 0,03 |
| 6 | Inbertsio errealak | 103.500,00 | 2,27 |
| GUZTIRA | | 4.551.090,51 | 100,00 |

**Berdintasunerako kontu-sail espezifiko bat** sartu da, **4.770,70 eurorena, argitalpenetarako, bileretarako eta hitzaldietarako;** hori aurreko urtekoa baino 1.170,70 euro handiagoa da.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| GENERO GARRANTZIA | Eragina-gaitasuna analisia, 2013. | | Zehaztugabea | |
| | Aurrekontu programen erlazioa III. Berdintasun Planeko esku hartze lerroekin | | 4L. Jaiak eta kultura ez sexista<br>6L. Emakumeen parte hartze soziopolitikoa eta ekonomikoa<br>7L. Autonomia eta norberaren boterea | |
| | Eragina gizarte talde nagusietan | | Helduak<br>Haurrak eta nerabeak | |
| GENERO ADIERAZLEAK | Ikasleak | Ikastaroak guztira | E | % 52,7 |
| | | | G | % 47,3 |
| | | Segregazio horizontala. Espezialitate kopurua | E % > 60 | 11 |
| | | | G % > 60 | 13 |
| | III. Berdintasun Planaren ezarpena | Berdintasunerako neurriak garatzeko barneko koordinazio taldea | | |
| | Berdintasunerako kontu-sail espezifikoa | 2017. Exekuzio maila | % 100,0 | |
| | | 2018 | 4.770,70 € | |

## GAZTERIA

**Gazteria** programa, *Kultura* gastu politikan sartua, 2.191.226.10 euro da 2018an, udal aurrekontuen % 0,49. 2017an, 2.262.509,99 euro izendatu ziren kontu-sail honetarako, aurrekontuen % 0,54.

Programa horren helburua da hiria erakargarria izatea haur, nerabe eta gazteentzat, kalitatezko aisialdi hezigarria eskaintzea eta gazteei lana eta etxebizitza lortzen laguntzea. Sail honek gogoeta estrategikoa egin du eta 2017-2020 aldirako helburuak eta erronkak ezarri ditu; horien artean, genero berdintasuna.

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 459.381,88 | 20,97 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 1.539.364,22 | 70,25 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 167.480,00 | 7,64 |
| 6 | Inbertsio errealak | 25.000,00 | 1,14 |
| GUZTIRA | | 2.191.226.10 | 100,00 |

## 2. kapitulua

Gazteria programako 2. kapituluan 1.539.364,22 euroren izendapena egin da 2018an, 2017an baino 210.397,94 euro gehiago; beraz**, % 15,8ko igoera** izan da.

| Kontu-saila | Gastuen azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 226.06 | Jarduera soziokulturalak | 140.789,81 |
| 226.06.02 | Gazteen trukeak: gazteak eta Europa | 10.523,69 |
| 226.06.03 | Umeen eta gazteen aisialdia (denbora librea eta Gabonak) | 49.766,12 |
| 226.06.04 | Gazte plana | 24.000,00 |
| 226.06.05 | Kultura hedapena | 6.500,00 |
| 226.06.06 | Kultura sustapena | 26.500,00 |
| 226.06.07 | Berdintasunerako programak | 20.500,00 |
| 226.06.08 | Izarrak Plazara | 3.000,00 |
| 227.04 | Zerbitzu enpresak | 1.246.921,35 |

Gazte informaziorako zerbitzua, haurtxokoen eta gaztelekuen sarea, aisialdiko programak eta gazteen partaidetza dira Gazteria sailaren jardunaren zutabeak, eta islatuta daude aurrekontuan. **2. kapituluko kontu-sail handiena (227.04) haurtxoko eta gaztelekuen sarearena da; ekipamendu horiek estrategikoak dira genero ikuspegitik,** aukera ematen baitute haurrekin eta gazteekin zuzenean lan egiteko eta zuzenean ezagutzeko haien behar eta interesak, hezkuntza ez- formaleko programen testuinguruan. Espazio horiek Donostiako auzoetan banatuta daude, sare handi bat osatzen dutela, eta kanpoko kontratazio bidez kudeatzen dira. Esleitutako azken kontratuaren baldintzetan jasota zeuden berdintasun klausula batzuk, eta horri esker, zentro horietako hezitzaileek berdintasunaren arloko prestakuntza daukate, Udalaren Berdintasun Plana ezagutzen dute eta koedukazioko jarduerak egiten dituzte haur eta gazteekin (2017an horrelako jardueretan sakontzen jarraituko dute). Kontu-sail horretan **igoera garrantzitsua** izan da 2017. urtearekiko: **% 16,5ekoa**.

**Berdintasunerako kontu-sail espezifiko bat (226.06.07) sartu da, 20.500 eurorena, programetan eta jardueretan indarkeria matxistari aurrea hartzeko.**

Programak baditu aisialdi programetarako kontu-sailak ere: Gabonetakoa, haurrei bideratua, eta kultura aisialdikoa, nerabeei eta gazteei bideratua. Lehenengoan, genero ikuspegia duten jarduera hezitzaileak sartu dituzte aurreko edizioetan, eta alderdi horrek iraunkorra izan behar du eskaintzan.

## 4. kapitulua

| Kontu-saila | Gastuen azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 432.01 | DKrekin ikus-entzunezko hitzarmenetarako ekarpena | 2.000,00 |
| 481.01 | Gazte elkarteak | 95.300,00 |
| 481.02 | Haurtxokoak (udal haurtxoko gabeko auzoetarako haur-ekipamenduetarako hitzarmenak) | 64.657,00 |
| 481.03 | Beste diru laguntza zuzenak | 5.523,00 |
| | **4. kapituluaren guztizkoa** | **167.480,00** |

4. kapituluan gazte elkarteentzako diru laguntzak sartuta daude (481.01 kontu-saila), eta horiek berdintasun klausulak dituzte oinarri arautzaileetan.

## 6. kapitulua

6. kapituluan, 25.000 euroren kontu-sail bat dago haur eta gazteentzako ekipamenduetarako. Ekipamendu horietan, lehen adierazi denez, emakumeek pairatzen duten indarkeriaren prebentzioari heltzen zaio, gazteen parte-hartzea landuz… eta, beraz, eragina du III. Planeko esku-hartze lerro hauetan: (2) *Zaintza erantzunkideak, (3) Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea* eta *(6) Emakumeen parte hartze soziopolitikoa eta ekonomikoa*.

| | | | |
|---|---|---|---|
| GENERO GARRANTZIA | Eragina-gaitasuna analisia, 2013. | Zehaztugabea | |
| | Aurrekontu programen erlazioa III. Berdintasun Planeko esku hartze lerroekin | 2L. Zaintza erantzunkideak<br>3L. Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea<br>4L. Jaiak eta kultura ez sexista<br>5L. Ohitura osasungarriak eta kirola<br>7L. Autonomia eta norberaren boterea | |
| | Eragina gizarte talde nagusietan | Haurrak eta nerabeak | |
| GENERO ADIERAZLEAK | Berdintasunerako kontu-sail espezifikoa | 2017. Exekuzio maila | % 91,10 |
| | | 2018 | 20.500,00 € |

## ●DONOSTIA KIROLA
## KIROL INSTALAKUNTZAK (DONOSTIA KIROLA)
## KIROLAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Kiroletako Udal Patronatua Udalaren erakunde autonomiaduna da, udalerrian kirola garatzea xede duena, kirola pertsonen oinarrizko eskubidea dela iritzita, kirolaren alderdi hezigarria, jolas alderdia eta alderdi lehiakorra aintzat hartuta, bai eta kirola ikuskizun gisa hartuta ere.

Kirol instalakuntzak kudeatzen ditu, zuzenean (Belodromoa, Gasca-Atano, Yoldi, Bidebieta, Donostia Arena, Intxaurrondo, Altza, Egia, Benta Berri, Etxadi) nahiz zeharka (Zuhaizti kiroldegia, Martutene FK, Berio FK, Matigoxotegi FK, Cesar Benito FK, Puio FK, Loiolako Erriberak KK).

**Kirol Txartela eta kirol kanpainak** kudeatzen ditu. Kirol Txarteleko abonatuen kopurua 48.452 pertsonakoa zen 2016an; horietatik % 45,7, emakumezkoa.

Eta diru laguntza nominatiboak eta lehiaketa bidezkoak ematen ditu. Lehiaketa bidezko diru laguntzei dagokienez, ekintza positibo bat ezarrita dute: klubetan federatuta dauden emakumeei puntuen bikoitza ematen zaie. Ez dugu sexuen arabera bereizitako daturik laguntza horiei buruz.

**Kiroletako Udal Patronatuaren aurrekontua, 2018rako, 16.503.305,56 euro** da (udal aurrekontuen % 3,7), 2017koa baino 2.215.158,31 euro gehiagokoa.

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 4.221.594,98 | 25,58 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 8.512.286,12 | 51,58 |
| 3 | Finantza gastuak | 23.500,00 | 0,14 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 1.355.500,00 | 8,21 |
| 6 | Inbertsio errealak | 2.390.424,46 | 14,49 |
| GUZTIRA | | 16.503.305,56 | 100,00 |

**2018ko udal aurrekontuetan berdintasunerako bi kontu-sail espezifiko sartu dira,** emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean eta III. Berdintasun Plana ezartzeko antolatzen diren jarduera zehatzetarako.
***Goazen neskak* bideoa. 4.235,00 €, eliteko emakume kirolariak ageriko egiteko, emakume eta neskei erreferente positiboak eskaintzeko, eta, era horretara, emakumeen kirola sustatzeko.**
***Running emakumeak* kirol kanpaina. 3.125,00 €**

<table>
<tr><td rowspan="3">GENERO GARRANTZIA</td><td colspan="2">Eragina-gaitasuna analisia, 2013.</td><td colspan="2">Zehaztugabea</td></tr>
<tr><td colspan="2">Aurrekontu programen erlazioa III. Berdintasun Planeko esku hartze lerroekin</td><td colspan="2">5L. Ohitura osasungarriak eta kirola</td></tr>
<tr><td colspan="2">Eragina gizarte talde nagusietan</td><td colspan="2">Adinekoak<br>Helduak<br>Haurrak eta nerabeak<br>Behar bereziak dituzten pertsonak</td></tr>
<tr><td rowspan="6">GENERO ADIERAZLEAK</td><td rowspan="2">Erabiltzaileak</td><td rowspan="2">Kirol txartela. Abonatuak</td><td>E</td><td>% 45,71</td></tr>
<tr><td>G</td><td>% 54,47</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Kirol federatua</td><td rowspan="2">2016ko federazioaren lizentzia</td><td>E</td><td>% 29,65</td></tr>
<tr><td>G</td><td>% 70,35</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Berdintasunerako kontu-sail espezifikoa</td><td colspan="2">2017. Exekuzio maila</td><td>% 159,00</td></tr>
<tr><td colspan="2">2018</td><td>7.360,00 €</td></tr>
</table>

# 7.3. Oinarrizko zerbitzu publikoak

## ●UDALTZAINGOA

**Udaltzaingoa** programa, *Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna* gastu politikan sartua, 23.023.424,53 euro da 2018an, udal aurrekontuen % 5,17. 2017an, kontu-sail honetarako 22.612.752,87 euro izendatu ziren (aurrekontuen % 5,43). Programa honetan, beraz, igoera 410.671,66 euro da (% 1,82).

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 21.496.153,81 | 93,37 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 1.446.766,69 | 6,28 |
| 6 | Inbertsio errealak | 80.504,03 | 0,35 |
| GUZTIRA | | 23.023.424,53 | 100,00 |

Programa honetan 1. kapitulua funtsezkoa da, aintzat hartuta udaltzainek eraso sexistak jasan dituztenei ematen dieten arreta.

Ez da kontu-sail espezifikorik izendatu III. Berdintasun Plana ezartzeko.

## ●HIRI MUGIKORTASUNA

**Hiri mugikortasuna** programa, *Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna* gastu politikan sartua, 9.034.093,51 euro da 2018an, udal aurrekontuen % 2,03. 2017an, kontu-sail honetarako 8.943.561,86 euro (aurrekontuen % 2,15) izendatu ziren; 90.531,65 euro (% 1,01) handitu da.

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 5.580.907,47 | 61,78 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 2.482.686,04 | 27,48 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 10.500,00 | ,12 |
| 6 | Inbertsio errealak | 960.000,00 | 10,63 |
| GUZTIRA | | 9.034.093,51 | 100,00 |

### 2. kapitulua

2018an, Hiri mugikortasuna programako 2. kapitulurako 2.482.686,04 euro izendatu dira. 2017an, 2.049.313,77 euro ziren; beraz, **% 21,1 handitu da**.

| Kontu-saila | Gastuen azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 226.99 | Beste hainbat gastu | 150.354,00 |
| 226.99.01 | Beste hainbat gastu | 2.000,00 |
| 226.99.03 | Bizikleta feria | 25.000,00 |
| 226.99.05 | Mugikortasun iraunkorraren astea | 5.572,00 |
| 226.99.07 | Eskolarako bidea | 49.844,45 |
| 226.99.11 | CLA proiektua | 32.350,00 |
| 226.99.14 | Sumps-Up | 35.932,00 |

## 4. kapitulua

| Kontu-saila | Gastuen azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 435.01 | Diru ekarpena Cristina Eneari, Bizikleta Behatokirako | 3.000,00 |
| 481.01 | Diru laguntza Kalapieri, bizikletaren erabilera sustatzeko | 7.500,00 |
| | **4. kapituluaren guztizkoa** | **10.500,00** |

## 6. kapitulua

| Kontu-saila | Gastuen azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 601.02 | Oinezkoentzako bihurtzea Amara Osinagan | 300.000,00 |
| 601.04 | Bide segurtasuneko hobekuntzak | 100.000,00 |
| 601.05 | Karlos I.aren urbanizazio lanak (B fasea) | 160.000,00 |
| 601.99.02 | Loturak txirrindularientzat | 250.000,00 |
| 623.02.01 | Semaforo instalazioak | 100.000,00 |
| 623.02.02 | Ibilgailu elektrikoentzako instalazioak | 50.000,00 |
| | **6. kapituluaren guztizkoa** | **960.000,00** |

Donostiako emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoaren arabera, emakumeak gehiago mugitzen dira oinez. Hainbat azterlanek erakutsi dute mugikortasun iraunkorra lagungarria dela kontziliaziorako eta erantzunkidetasunerako. Mugikortasun iraunkorra aurrera doa, eta hurbileko zerbitzuak behar ditu auzoetan (eskolak, haurtzaindegiak, osasun zentroak, dendak eta abar) jendeak joan-etorri laburrak egiteko, ahal dela oinez.

Ikuspegi horretatik, oso interesgarria da **Eskola Bidea**, Mugikortasun Zuzendaritzak sustatutako programa; izan ere, neska-mutilen autonomia sustatzen du etxetik eskolara taldean joateko, boluntarioen laguntzaz. Programa horretarako badago kontu-sail bat (226.99.07), 49.844,45 eurokoa, proiektua kudeatzeko laguntza teknikoa kontratatzeko. **Laguntza tekniko hori, gainera, lankidetzan aritzen da Donostia Lagunkoia programan eta III. Berdintasun Planeko neurriak garatzen**, eta, hortaz, horren zati txiki bat berdintasunerako kontu-sail espezifikotzat har liteke.

Bizikletaren erabilerari buruzko datuei begiratuta, nolabaiteko oreka dago emakumeen eta gizonen artean. 2016an egindako azken kontaketek erakusten dutenez, hau da sexuen araberako banaketa: Kontxa (% 39 emakumeak, % 61 gizonak), Federico Garcia Lorcako igogailu ingurua eta Cristina Enea parkea (% 49 emakumeak, % 51 gizonak), Kursaaleko zubia eta Zurriola hiribidea (% 41 emakumeak, % 59 gizonak), Santa Katalina zubia (% 36 emakumeak, % 64 gizonak). Baina ez da beti hala, baldin eta guneei edo bizikleta zaleen adinari erreparatzen badiegu. Emakumeek nahiago dituzte erdialdeko guneak bizikletaz ibiltzeko, ez hainbeste kanpoko eremuak. Gainera, 60 urtetik gorako emakumeen artean bizikletaren erabilerak nabarmen egiten du behera.

Bizikletak alokatzeko Dbizi sistema publikoa 2015ean aldatu zen, eta gaur egun bizikleta elektrikoak aloka daitezke. Zerbitzuan izena eman dutenen % 44,4 emakumezkoa da, eta % 55,6, gizonezkoa. Hala ere, ez daukagu zerbitzuaren erabilera errealari buruzko daturik.

Autobusaren erabilerari dagokionez, DBUSen 2016ko bidaien zenbateko metatuak erakusten du bidaien % 67,38 emakumeek eginak direla, eta % 32,62, gizonek eginak. Egunez egiten diren bidaietan, ehunekoak antzekoak dira: % 67,43 emakumeak eta % 32,57 gizonak. Gaueko lineen erabileran, berriz, gizonen ehunekoa handiagoa da:emakumeak % 57,39 dira, eta gizonak, % 42,61.

Hori guztia kontuan hartuta, baiezta dezakegu emakumeen eta gizonen mugitzeko moduan desberdintasunak daudela, sexuaren araberako lan banaketatik eratorriak. Hala, adin ertaineko gizonek nagusiki ibilgailu pribatua erabiltzen dute ordaindutako lanarekin eta aisiarekin lotutako joan-etorrietarako, eta emakumeak, aldiz, batik bat oinez edo garraio publikoan mugitzen dira, gehiagotan eta bide laburragoetan, zaintzarekin, harreman pertsonalekin eta ordaindu gabeko lanarekin lotutako arrazoiengatik.

**Sexu bakoitzak erabiltzen dituen garraio motei buruzko datuak aintzat hartuta, komeni da gogoan edukitzea garraio publikoko sarea hobetzera bideratutako gastuak onura handiagoa ekarriko diela emakumeei eta horiek zaintzen dituzten pertsonei: adingabeei eta mendetasuna duten pertsonei.** Aldiz, aparkalekuetan edo ibilgailu pribatuen joan-etorriak hobetzeko proiektuetan inbertituz gero, onuradun nagusiak gizonak izango dira.

Era berean, kontuan hartu behar da espaloian eraikitako bidegorriek espazioa eta segurtasuna kentzen dizkietela oinezkoei, batez ere ahulenei (adinekoak eta haurrak), eta arazoak sortzen dituztela oinezkoen eta txirrindularien artean. Motordun trafikotik hurbil dauden babes gutxiko bidegorriak ez dira oso erakargarriak emakumeentzat, eta arriskutsuagoak dira txirrindulari guztientzat. Beraz, bidegorri seguruetan inbertitzea komeni da: trafikoaren abiadura moteltzen lagunduko duten eta oinezkoen pasabideetan ahalik eta eragozpen gutxien sortuko duten bidegorrietan. Era berean, interesgarria izango litzateke auto gidarientzako sentsibilizazio kanpainak egitea autoen eta bizikleten arteko bizikidetza hobea sustatzeko, eta emakumeak, bereziki 60 urtetik gorakoak, bizikleta erabiltzera animatzea, bizikleta elektrikoen alokairu publikoko sistemari buruzko ikastaroak eta erakustaldiak eginez.

Azkenik, eredu maskulinoa orokortzea eragotzi nahi bada (hau da, kasu honetan, emakumeek gizonen garraio ohiturak hartzea) eta mugikortasun iraunkorraren aldeko apustua egin nahi bada, aztertu behar da nola erakar daitezkeen gizonak garraio publikoaren sarera, eta, hortaz, sentsibilizazio kanpainek, halakorik bada, gizonengana bideratuta egon beharko dute. Bestalde, hiriko trafikoari eta mugitzeko moduei buruzko edozein azterlanek kontuan hartu beharko luke genero ikuspegia, arlo horretan desberdintasun handiak baitaude, deskribatu dugunez.

| | | |
|---|---|---|
| GENERO GARRANTZIA | Eragina-gaitasuna analisia, 2013. | 17 |
| | Aurrekontu programen erlazioa III. Berdintasun Planeko esku hartze lerroekin | 2L. Zaintza erantzunkideak<br>3L. Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea<br>5L. Ohitura osasungarriak eta kirola |
| | Eragina gizarte talde nagusietan | Adinekoak<br>Helduak<br>Haurrak eta nerabeak<br>Behar bereziak dituzten pertsonak |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| GENERO ADIERAZLEAK | DBizi | Txartelen titularrak | E | % 44,4 |
| | | | G | % 55,6 |
| | Kontratazioak | TAO agenteak | E | % 37,7 |
| | | | G | % 62,3 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Garabietako langileak | E | % 11,1 |
| | | | G | % 88,9 |
| | | Semaforoetako langileak | E | % 22,7 |
| | | | G | % 77,8 |
| | Eskola Bidea | Zentro parte hartzaileak | 21 | |
| | Berdintasunerako kontu-sail espezifikoa | 2018 | 0,00 € | |

## ●HIRIGINTZA

**Hirigintza** programa, *Etxebizitza eta hirigintza* gastu politikan sartua, 26.205.935,95 euro da 2018an, udal aurrekontuen % 5,89. 2017an, kontu-sail honetarako 29.918.492,13 euro izendatu ziren (aurrekontuen % 7,19); jaitsiera 3.712.556,18 euro da (% 12,41).

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 4.220.697,37 | 16,11 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 343.349,01 | 1,31 |
| 6 | Inbertsio errealak | 18.261.285,38 | 69,68 |
| 7 | Kapital transferentziak | 3.381.604,19 | 12,90 |
| GUZTIRA | | 26.205.935,95 | 100,00 |

Programa honetako kapitulu garrantzitsuena inbertsio errealena da; aurrekontu horren % 69,68 dagokio.

## 6. kapitulua

| Kontu-saila | Gastuen azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 600.99.01 | Lursailak eta beste ondasun eta eskubide batzuk bereganatzea, desjabetzeengatiko kalte ordainak eta aldi baterako ostatu emateak | 2.755.527,37 |
| 601.99.04 | Txomin ibai parkea | 2.564.102,62 |
| 601.99.05 | Urumeako ibarreko azpiestazio elektrikoa | 477.165,15 |
| 601.99.06 | Astiñene zubia | 250.000,00 |
| 601.99.08 | Espartxo zubia | 500.000,00 |
| 601.99.09 | Eskuzaitzetako urbanizazio lanak | 10.512.627,59 |
| 601.99.10 | Añorga bulebar bihurtzea, II. fasea | 100.000,00 |
| 622.99.01 | San Bartolomeko bainu etxea berrezartzea | 491.093,69 |
| 643.01 | Beste azterlanak eta laguntza teknikoak | 610.768,96 |
| | **6. kapituluaren guztizkoa** | **18.261.285,38** |

**Urbanizazio lanak:** inbertsio horiek interesekoak dira, betiere oinezkoentzako guneei badagozkie, hiriaren erabilera komunitarioa, hiriguneen eraberritzea eta garraiorako autoa ez den beste modu batzuk erabiltzea errazten baitute; eragina dute III. Planeko *(7) Autonomia eta norberaren boterea* esku-hartze lerroan.

| | | |
|---|---|---|
| GENERO GARRANTZIA | Eragina-gaitasuna analisia, 2013. | 26 |
| | Aurrekontu programen erlazioa III. Berdintasun Planeko esku hartze lerroekin | 3L. Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea |
| | Eragina gizarte talde nagusietan | Adinekoak<br>Helduak<br>Haurrak eta nerabeak<br>Behar bereziak dituzten pertsonak |
| GENERO ADIERAZLEAK | Berdintasunerako kontu-sail espezifikoa | 2017. Grado de ejecución: % 0,0<br>2018: 0,00 € |

## ●DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA

Etxegintza enpresa publikoaren aurrekontua, 2018rako, 26.246.973,06 euro da; % 9,33 jaitsi da 2017ko aurrekontuarekiko (28.948.822,47 €).

Udalaren ekarpena 419.014,08 euro da, 2017an baino 290.323,31 euro gehiago. Era berean, 2018ko aurrekontuan Udalak 1.389.624,08 euroren ekarpena egiten du, enpresaren kapital gastua finantzatzeko.

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 1.549.405,53 | 5,90 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 2.827.710,32 | 10,77 |
| 3 | Finantza gastuak | 1.330.787,07 | 5,07 |
| 6 | Inbertsio errealak | 15.804.528,42 | 60,22 |
| 9 | Finantza pasiboak | 4.734.541,72 | 18,04 |
| GUZTIRA | | 26.246.973,06 | 100,00 |

ALOKABIDE zerbitzutik, beren etxebizitza alokairuan eman nahi dutenen eta etxebizitza bat alokatu nahi dutenen artean bitartekaritza egiten duen zerbitzutik, lehentasuna ematen diote indarkeria matxistari aurre egin beharrean diren emakumeei ostatu emateari, gizarte zerbitzuek hala eskatuta.

Beste zerbitzuetako bat da 65 urtetik gorakoei alokairuan, 243 euroko errentaren truke, apartamentuak eskaintzea, bi logelakoak, pertsona batek zaintzera joan behar badu ere, eta 35 urtetik beherako gazteei, logela batekoak, eta gehienez 5 urtetarako.

Beste kontu-sailetako bat da birgaitzeko diru laguntzena auzo elkarteentzat eta familientzat. Laguntza horien xedea da adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzea (mugikortasuna, segurtasuna, eraginkortasun energetikoa).

## ●BIDE PUBLIKOAK

**Bide publikoak** programa, *Etxebizitza eta hirigintza* gastu politikan sartua, 3.464.318,04 euro da 2018an, udal aurrekontuen % 0,78. 2017an, kontu-sail honetarako 2.674.968,66 euro izendatu ziren (aurrekontuen % 0,64); beraz, igoera 789.349,38 eurokoa da (% 29,51).

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 368.520,52 | 10,64 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 902.356,52 | 26,05 |
| 6 | Inbertsio errealak | 2.193.441,00 | 63,31 |
| GUZTIRA | | 3.464.318,04 | 100,00 |

2. kapituluan bada kontu-sail garrantzitsu bat (227.13.03), 201.031,64 eurorena, **haurrentzako jolasen eta parkeen mantentzerako,** eta hala, zaintzak hiriaren antolaketaren barnean hartzen dira; eta beste kontu-sail bat (227.13.04), 130.724,88 eurorena, **bankuen mantentzerako**.

Programa honetako kapitulu garrantzitsuena inbertsio errealena da; aurrekontu horren % 63,31 dagokio.

### 6. kapitulua

| Kontu-saila | Gastuen azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 601.01 | Larramendi kalea oinezkoentzako kale bihurtzea | 200.000,00 |
| 601.02 | San Bartolome kalean zoladura berria jartzea | 350.000,00 |
| 601.03 | Rodil kaleko hesia | 148.441,00 |
| 601.08 | Bera Berako hormako lanak | 200.000,00 |
| 601.09 | Hobekuntzak irisgarritasunean | 800.000,00 |
| | **6. kapituluaren guztizkoa** | **2.193.441,00** |

**Zoladuren, espaloien eta irisgarritasunaren hobekuntzak garrantzitsuak dira genero ikuspegitik.** Oinezkoen, mendekotasunen bat duten pertsonen eta aulkian doan haur batekin egiten diren joan-etorriak errazten dituztenez, eragina dute III. Planeko (2) *Zaintza erantzunkideak* eta (7) *Autonomia eta norberaren boterea* esku-hartze lerroetan.

## ●ARGITERI PUBLIKOA

**Argiteria publikoa** programa, *Komunitate ongizatea* gastu politikan sartua, 4.398.389,73 euro da 2018an, udal aurrekontuen % 0,99. 2017an, kontu-sail honetarako 4.235.091,082 euro izendatu ziren (aurrekontuen % 1,02); 163.297,91 euro (% 3,86) handitu da.

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 52.584,73 | 1,20 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 3.915.805,00 | 89,03 |
| 6 | Inbertsio errealak | 430.000,00 | 9,77 |
| GUZTIRA | | 4.398.389,73 | 100,00 |

2. kapituluan, kontu-sail hauek nabarmentzen dira: 221.01, energia elektrikoarena, 2.000.000,00 eurorena; eta 227.13.02, argiteria publikoaren mantentzeari dagokiona, 1.775.000,00 eurorena.

## ●PARKE ETA LORATEGIAK

**Parkeak eta lorategiak** programa, *Ingurumena* gastu politikan sartua, 6.346.552,68 euro da 2018an, udal aurrekontuen % 1,43. 2017an, kontu-sail honetarako 6.707.720,44 euro izendatu ziren (aurrekontuen % 1,61); jaitsiera 361.167,76 eurokoa da (% 5,38), eta batez ere inbertsioen 6. kapituluari dagokio.

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 549.294,68 | 8,65 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 5.547.258,00 | 87,41 |
| 6 | Inbertsio errealak | 250.000,00 | 3,94 |
| GUZTIRA | | 6.346.552,68 | 100,00 |

Kapitulu honetako 250.000 euroak arriskua eragiten duten zuhaitzak ipurditik mozteko dira.

2. kapituluan, kontu-sail handiena (227.14), 4.740.750,00 eurorena, berdeguneen mantentze lanetarako da.

Kontu-sail horiek hiriaren erabilera komunitarioa errazten dute, eta eragina dute III. Planeko *(7) Autonomia eta norberaren boterea* esku-hartze lerroan.

## ●HONDARTZAK

**Hondartzak** programa, *Ingurumena* gastu politikan sartua, 2.334.468,69 euro da 2018an, udal aurrekontuen % 0,52. 2016an, kontu-sail honetarako 2.167.158,05 euro izendatu ziren (pisu berdina aurrekontuetan); igoera 167.310,64 eurokoa da (% 7,72).

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 97.245,29 | 4,17 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 2.237.223,40 | 95,83 |
| GUZTIRA | | 2.234.468,69 | 100,00 |

2. kapituluan, kontu-sail hauek nabarmentzen dira: 227.01, hondartzetako garbiketa-lanetarakoa, 649.087,08 eurorena; 227.99.04, salbamendu eta lehen laguntzarakoa, 439.550,00 eurorena; eta 227.99.03, kabina kolektiboetarakoa, 321.570,97 eurorena.

## 7.4. Jarduketa ekonomikoak

### ●HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

**Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa** programa, *Azpiegiturak* gastu politikan sartua, 1.767.557,98 euro da 2018an, udal aurrekontuen % 0,40. 2016an, kontu-sail honetarako 1.732.418,30 euro izendatu ziren (aurrekontuen % 0,47); 35.139,68,32 euro (% 2,03) handitu da.

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 1.002.557,98 | 56,72 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 115.700,00 | 6,51 |
| 6 | Inbertsio errealak | 650.000,00 | 36,77 |
| GUZTIRA | | 1.767.557,98 | 100,00 |

2017an bezala, **Berdintasunerako kontu-sail espezifiko bat (226.99.02) sartu da, 25.000,00 eurorena: 20.000 euro, puntu kritikoekin lotutako hobekuntzak egiteko; eta 5.000 euro, genero ikuspegia aintzat hartuko duten partaidetza prozesuetarako.**

Hirian seguru sentitzen ez diren emakumeen kopurua gizonena halako bi da, eta horrek eragina dauka emakumeen mugimendu askatasunean. Orain dela bi urtetik, Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zuzendaritzak hiriaren osaera eta mugikortasuna genero ikuspegitik aztertzen duen sailarteko udal talde batean parte hartzen du, emakumeen ustez arriskutsuenak diren hiriko guneetan arrisku hori desagerrarazteko edo arintzeko.

<table>
<tr><td rowspan="3">GENERO GARRANTZIA</td><td colspan="2">Eragina-gaitasuna analisia, 2013.</td><td colspan="2">18</td></tr>
<tr><td colspan="2">Aurrekontu programen erlazioa III. Berdintasun Planeko esku hartze lerroekin</td><td colspan="2">2L. Zaintza erantzunkideak<br>3L. Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea<br>5L. Ohitura osasungarriak eta kirola<br>6L. Emakumeen parte hartze soziopolitikoa eta ekonomikoa</td></tr>
<tr><td colspan="2">Eragina gizarte talde nagusietan</td><td colspan="2">Adinekoak<br>Helduak<br>Haurrak eta nerabeak<br>Behar bereziak dituzten pertsonak</td></tr>
<tr><td rowspan="8">GENERO ADIERAZLEAK</td><td rowspan="3">Kexak</td><td rowspan="3">Iradokizunak</td><td>E</td><td>% 44,2</td></tr>
<tr><td>G</td><td>% 44,1</td></tr>
<tr><td>%ZG</td><td>% 11,7</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Puntu kritikoak</td><td colspan="2">Zenbat puntu kritikotan esku hartu den, 2015-2017</td><td>17</td></tr>
<tr><td colspan="2">Puntu kritikoetarako aurrekontua, 2015-2017</td><td>167.908,87 €</td></tr>
<tr><td colspan="2">Irisgarritasuna hobetzeko aurrekontua, 2017</td><td>250.000,00 €</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Berdintasunerako kontu-sail espezifikoa</td><td colspan="2">2017. Exekuzio maila</td><td>% 58,5</td></tr>
<tr><td colspan="2">2018</td><td>25.000,00 €</td></tr>
</table>

## ●PROIEKTU ETA OBRAK

**Proiektu eta obrak** programa, *Azpiegiturak* gastu politikan sartua, 13.253.389,85 euro da 2018an, udal aurrekontuen % 2,98. 2017an, kontu-sail honetarako 12.416.353,85 euro izendatu ziren (pisu berdina aurrekontuetan); igoera 837.036,00 eurokoa da (% 6,74).

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 2.079.601,85 | 15,69 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 65.586,40 | 0,50 |
| 6 | Inbertsio errealak | 11.108.201,60 | 83,81 |
| GUZTIRA | | 13.253.389,85 | 100,00 |

Programa honetako kapitulu garrantzitsuena inbertsio errealena da; aurrekontu horren % 83,81 dagokio.

### 6. kapitulua

| Kontu-saila | Gastuen azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 601.06 | Zubietako bidea egokitzea | 239.013,38 |
| 601.09 | Bera Berako urbanizazio lanak | 500.000,00 |
| 601.99.01 | Altzako lursailetako kutsadura kentzea | 2.000.000,00 |
| 601.99.02 | Maria Kristina zubia birgaitzea | 1.000.000,00 |
| 601.99.04 | Kontxako baranda | 500.000,00 |
| 601.99.05 | Loiolako zeharbidea | 1.619.327,69 |
| 601.99.06 | Iztuetako zubiaren inguruan hobekuntzak egitea | 549.860,53 |
| 601.99.07 | Saguesen antolamendua | 500.000,00 |
| 601.99.11 | Ikasketen plaza | 1.000.000,00 |
| 601.99.16 | Bideozaintza igogailuetan | 100.000,00 |
| 622.99.02 | ”Pescadería” eraikina egokitzea | 2.700.000,00 |
| 643.01 | Segurtasun eta osasun arloko koordinazioa | 200.000,00 |
| 643.02 | Azterlanak eta proiektuak | 100.000,00 |
| 643.03 | Obren kalitate kontrola | 100.000,00 |
| | **6. kapituluaren guztizkoa** | **11.108.201,60** |

**Urbanizazio lanak**: inbertsio horiek interesekoak dira, betiere oinezkoentzako guneei edo **erabilera komunitarioko eremuei** badagozkie, hiriaren erabilera komunitarioa, hiriguneen eraberritzea eta garraiorako autoa ez den beste modu batzuk erabiltzea errazten baitute; eragina dute III. Planeko (7) *Autonomia eta norberaren boterea* esku-hartze lerroan**.**

Garrantzitsua da, halaber, igogailuetan bideozaintza ezartzea, puntu kritikoak arintze aldera.

## ●DONOSTIAKO SUSTAPENA S.A.

Donostiako Sustapena S.A. erakunde publikoa da eta **hiria sustatzea eta haren garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzea** ditu helburu, horretarako oinarri hartuta berrikuntza, ezagutzen sorrera eta eraldaketa, sareko lana eta proiektuen sustapena eta kudeaketa, iraunkortasun irizpideei jarraituz.

Donostiako Sustapenak III. Berdintasun Plana ezartzeko Sailarteko Batzorde Teknikoan parte hartzen du. Komeniko litzateke, sozietate anonimo den aldetik, berdintasunerako barruko plan propio bat izatea, beste udal enpresa batzuek bezala.

Donostia Sustapenaren aurrekontua, 2018rako, 13.885.997,00 euro da (udal aurrekontuen % 3,12); 2017an baino 346.006,17 euro (% 2,56) gehiago. Diru sarreren atalean, Udalaren ekarpena da diru iturririk garrantzitsuena, 5.719.662,00 euro, eta 1.300.000 euro, enpresaren kapital gastuak finantzatzeko.

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 2.661.242,00 | 19,16 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 6.094.067,00 | 43,89 |
| 3 | Finantza gastuak | 4.308,00 | 0,03 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 3.826.380,00 | 27,56 |
| 6 | Inbertsio errealak | 1.300.000,00 | 9,36 |
| GUZTIRA | | 13.885.997,00 | 100,00 |

**Donostia UP! enplegua sustatzeko planaren** barruan, kontratazioko laguntzak kudeatzen dituzte, langabetuei orientabidea ematen, klusterrak antolatzen, eta hainbat proiektu bideratzen, hala nola 35 urtetik berakoentzako Talentu Berritzailea programa edo 45 urtetik gorakoentzako Esperientzia programa.

Era berean, babes teknikoa eta ekonomikoa eskaintzen dizkio ohiko ekintzailetzari, baina, sektore estrategikoetan, ekimenak sortzen ditu, bai eta ekimen berriak sendotzeko babesa ematen ere.

Ez dago emakumeentzako proiektu espezifikorik.

Plan garrantzitsua da genero ikuspegitik, baina informazio gehiago behar dugu, programen genero eragina aztertzeko.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| GENERO GARRANTZIA | Eragina-gaitasuna analisia, 2013 | Zehaztugabea | | |
| | Aurrekontu programen erlazioa III. Berdintasun Planeko esku hartze lerroekin | 2L. Zaintza erantzunkideak<br>7L. Autonomia eta norberaren boterea | | |
| | Eragina gizarte talde nagusietan | Helduak<br>Behar bereziak dituzten pertsonak | | |
| GENERO ADIERAZLEAK | Pertsona onuradunak | Esperientzidun pertsonak kontratatzeko dirulaguntzak | %E | 42,9% |
| | | | %G | 57,1% |
| | | Enpresa txiki eta ertanei kontratazioko dirulaguntzak | %E | 65,4% |
| | | | %G | 34,6% |
| | | Talentua kontratatzeko dirulaguntzak | %E | 32,3% |
| | | | %G | 67,7% |
| | | Nazioarteratze bekak | %E | 46,7% |
| | | | %G | 53,3% |
| | | Gizarteratze kontratuak | %E | 41,7% |
| | | | %G | 58,3% |
| | | Enpresa sortu eta dirulaguntza jasotzen duten pertsonak | %E | 62,5% |
| | | | %G | 37,5% |
| | | Ekintzailetasun tasa ((ekintzen duten emakumeak/1. Kontaktua emakumeak)/(ekintzen duten gizonak/ 1. kontaktua gizonak)) | 1,41 | |
| | Berdintasun plan propioa | Ez dauka | | |
| | Berdintasunerako kontu-sail espezifikoa | 2018 | 0,00 € | |

## ●DBUS

DBUS enpresa publikoaren 2018rako aurrekontua 37.127.921,34 euro da, 2017an baino 600.530,54 euro gehiago (% 1,64 handitu da).

Diru sarreren atalean, zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak dira sarrerarik garrantzitsuenak (20.119.124,85 €), eta, atzetik, Udalaren ekarpena (14.437.060,96 €).

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 26.279.939,36 | 70,78 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 7.868.931,98 | 21,20 |
| 3 | Finantza gastuak | 650,00 | 0,00 |
| 6 | Inbertsio errealak | 2.978.400,00 | 8,02 |
| GUZTIRA | | 37.127.921,34 | 100,00 |

Dbus enpresa publikoa bigarren Berdintasun Plana ezartzen ari da. Plan horrek langile taldearen osaerari eragingo dio, eta haren xede nagusia da **gidarien artean emakume gehiago izatea**. Aurrerapenak lortu dituzte helburu horri begira: **2004tik, emakume gidarien ehunekoa % 4,67tik % 9,4ra igo da.**

Iaz bezala, berdintasunerako kontu-sail espezifiko bat aurreikusi da, 4.500,00 eurorena, barruko berdintasun planean nahiz Udaleko III. Berdintasun Planean jasotako neurriak garatzeko.

<table>
<tr><td rowspan="3">GENERO GARRANTZIA</td><td colspan="2">Eragina-gaitasuna analisia, 2013. Mugikortasuneko arlo teknikoa</td><td colspan="2">18</td></tr>
<tr><td colspan="2">Aurrekontu programen erlazioa III. Berdintasun Planeko esku hartze lerroekin</td><td colspan="2">2L. Zaintza erantzunkideak<br>3L. Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea<br>6L. Emakumeen parte hartze soziopolitikoa eta ekonomikoa<br>7L. Autonomia eta norberaren boterea</td></tr>
<tr><td colspan="2">Eragina gizarte talde nagusietan</td><td colspan="2">Adinekoak<br>Helduak<br>Haurrak eta nerabeak<br>Behar bereziak dituzten pertsonak</td></tr>
<tr><td rowspan="9">GENERO ADIERAZLEAK</td><td rowspan="2">Langileak</td><td rowspan="2">Gidariak</td><td>E</td><td>% 9,48</td></tr>
<tr><td>G</td><td>% 90,52</td></tr>
<tr><td rowspan="6">Erabiltzaileak</td><td rowspan="2">Erabiltzaileak</td><td>E</td><td>% 67,38</td></tr>
<tr><td>G</td><td>% 32,62</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Erabiltzaileak eguneko lineetan</td><td>E</td><td>% 67,43</td></tr>
<tr><td>G</td><td>% 32,57</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Erabiltzaileak gaueko lineetan (hontzak)</td><td>E</td><td>% 57,39</td></tr>
<tr><td>G</td><td>% 42,61</td></tr>
<tr><td>DBUS Berdintasun plana</td><td colspan="3">II. Berdintasun Plana<br>Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzailea (11/2014 Dekretuaren arabera; 2015/08/18 Ebazpena; 2015/12/29ko</td></tr>
</table>

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | EHAA) | |
| | Berdintasunerako kontu-sail espezifikoa | 2017. Exekuzio maila | % 100,00 |
| | | 2018 | 4.500,00 € |

# 7.5 Jarduketa orokorrak

## ●HERRITARREN PARTE HARTZEA

**Herritarren parte hartzea**, *Administrazio orokorra* gastu politikan sartua, 828.603,20 euro da 2018an, udal aurrekontuen % 0,19. 2017an, 786.376,20 euro izendatu ziren kontu-sail honetarako (ehuneko hori bera).

| KAPITULUA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA | % |
|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 417.778,20 | 50,42 |
| 2 | Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 260.700,00 | 31,46 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 75.125,00 | 9,07 |
| 6 | Inbertsio errealak | 75.000,00 | 9,05 |
| GUZTIRA | | 828.603,20 | 100,00 |

## 2. kapitulua

Herritarren parte hartzea programako 2. kapituluko izendapena 20.000,00 euro (% 8,3) handitu da 2017tik 2018ra; 240.700 eurotik 260.700 eurora igaro da.

| Kontu-saila | Gastuen azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 226.99 | Beste hainbat gastu | 225.000,00 |
| 226.99.02 | Lurraldeko partaidetza | 53.000,00 |
| 226.99.03 | Asoziazionismoaren sustapena | 40.000,00 |
| 226.99.04 | Udal transbertsalitatea partaidetzarako | 67.000,00 |
| 226.99.05 | Sektore-biztanleria partaidetza | 15.000,00 |
| 226.99.06 | Partaidetza sektoriala-tematikoa | 20.000,00 |
| 226.99.08 | Auzolana | 10.000,00 |
| 226.99.10 | Aurrekontu parte-hartzaileak | 20.000,00 |

Aurreko urteetan bezala, Herritarren Partaidetza Bulegoak, programaren arduradunak, **berdintasunerako zenbateko espezifiko bat izendatu du *226.99.04 Udal transbertsalitatea berdintasunerako* kontu-sailaren barruan: zehazki, 6.000 euro. 3.000 euro III. Berdintasun Plana ezartzeko dira, eta beste 3.000 euro, “Puntu kritikoen mapa” partaidetza espazio egonkorrerako**.

Bulegoak modu aktiboan parte hartzen du III. Berdintasun Plana ezartzen. Abian jarri duen ekintzetako batek zerikusia du **herritarren parte hartzerako udal kontseiluekin**. Kontseiluak partaidetza organoak dira, udaleko zenbait sailek kudeatzen dituztenak, esku hartzeko arloaren arabera (ingurumena, gizarte ekintza, berdintasuna, lankidetza eta abar). Haietan, politikari eta teknikari arduradunek harreman zuzena dute dagokion arloan jarduten duten herritar erakundeetako ordezkariekin. Auzoak eta Herritarren Partaidetza Bulegoak berdintasuneko klausulak ezarri ditu kontseilu horien oinarrizko araudi berrietan.

## 4. kapitulua

| Kontu-saila | Gastuen azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 481.02 | Transferentzia Zubietako Batzordeari | 5.000,00 |
| 481.04 | Diru laguntza Igeldoko Herri Kontseiluari | 7.000,00 |
| 481.05 | Diru laguntza Osteguna-Irale auzo elkarteari | 3.500,00 |
| 481.06 | Diru laguntza Oleta auzo elkarteari | 3.000,00 |
| | **4. kapituluaren guztizkoa** | **75.125,00** |

4. kapituluan sartu dira irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzen deialdi bakarra, partaidetza proiektuetarako diru laguntzak eta lurralde izaerako elkarteen gastu arruntetarako diru laguntzak.

## 6. kapitulua

6. kapituluan, 75.000,00 euro sartu dira auzo elkarteentzako lokalak prestatzeko.

<table>
<tr><td rowspan="3">GENERO GARRANTZIA</td><td colspan="2">Eragina-gaitasuna analisia, 2013.</td><td colspan="2">31</td></tr>
<tr><td colspan="2">Aurrekontu programen erlazioa III. Berdintasun Planeko esku hartze lerroekin</td><td colspan="2">3L. Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea<br>6L. Emakumeen parte hartze soziopolitikoa eta ekonomikoa</td></tr>
<tr><td colspan="2">Eragina gizarte talde nagusietan</td><td colspan="2">Adinekoak<br>Helduak<br>Behar bereziak dituzten pertsonak</td></tr>
<tr><td rowspan="2">GENERO ADIERAZLEAK</td><td rowspan="2">Berdintasunerako kontu-sail espezifikoa</td><td colspan="2">2017. Exekuzio maila</td><td>% 100,00</td></tr>
<tr><td colspan="2">2018</td><td>6.000,00 €</td></tr>
</table>

# 8. GASTU ERALDATZAILEA 2018KO UDAL AURREKONTUETAN

2017an abiarazi zen prozesuaren ondorioz, udal aurrekontuetan hainbat hobekuntza jaso dira, aurrekontuen gastu eraldatzailearen ehunekoa handitzea ahalbidetu dutenak. Gastu eraldatzailetzat jotzen da lagungarria dena genero desberdintasunaren oinarrian dauden funtsezko egiturak desegiteko eta desberdintasun hori eragiten eta errepikarazten duten mekanismoak apurtzeko.

2017an, ehuneko hori % 0,38 zen. 2018an, % 0,41era igo da.

| Sailak | 1. kap. | 2. kap. | 4. kap. | 6. kap. | GUZTIRA | Aurrekontu osoaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Berdintasuna | 412.099,29 | 273.090,93 | 128.000,00 | 85.000,00 | 898190,22 | % 0,20 |
| Lankidetza | | | 633.748,00 | | 633.748,00 | |
| Gizarte Ongizatea | 115.000,00 | 15.000,00 | | | 130.000,00 | |
| Heziketarako programak | | 60.144,35 | | | 60.144,35 | |
| Giza eskubideak | | 4.000,00 | | | 4.000,00 | |
| Kultur aniztasuna | | 10.000,00 | | | 10.000,00 | |
| Donostia Kultura | | 31.600,00 | | | 31.600,00 | |
| Musika eta dantza eskola | | 4.770,00 | | | 4.770,00 | |
| Gazteria | | 20.500,00 | | | 20.500,00 | |
| Donostia Kirola | | 7.360,00 | | | 7.360,00 | |
| Hiri mantentzea eta zerbitzuak | | 25.000,00 | | | 25.000,00 | |
| DBUS | | 4.500,00 | | | 4.500,00 | |
| Herritarren parte hartzea | | 6.000,00 | | | 6.000,00 | |
| **GUZTIRA** | 527.099,29 | 461.965,28 | 761.748,00 | 85.000,00 | 1.835.812,57 | **% 0,41** |

# 9. HOBETZEKO PROPOSAMENAK

## Udalaren funtsezko tresnekin artikulatzea

Udal aurrekontuen analisia, genero ikuspegitik, gizartean dauden genero desberdintasunak murrizteko eta emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrera egiteko aurrekontuek duten eragina hobetzea helburu duen analisi tresna bat da. Funtsezkoa da tresna hori Udalaren beste estrategia eta kudeaketa tresna batzuekin artikulatzea; besteak beste, hauekin: **kudeaketa plana, plan estrategikoa, sailetako planak eta Udaleko Berdintasun Plana bera**.

## Aurrekontu programen analisia pixkanaka zabaltzea

Txosten honetan aztertutako programekin garatutako prozedura genero ikuspegitik garrantzitsuak diren beste programa batzuetara zabaltzea. Esate baterako, programa hauetara: ***Donostia Turismoa***, *Merkataritza administrazio orokorra, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak* gastu politikakoa; ***Donostia Lagunkoia***, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikakoa; ***Giza baliabideak, Informazioko udal unitatea* eta *Herritarren arreta***, *Administrazio orokorra* gastu politikakoak.

## Gastu eraldatzailea

**Udal aurrekontuetako gastu eraldatzailearen ehunekoa handitzea.** Horretarako, batetik, Berdintasunerako aurrekontu programaren pisua areagotu behar da; programa horrek, bere osotasunean, helburu du udalerrian dauden genero desberdintasunak desagerraraztea eta berdintasuna sustatzea. Bestetik, beharrezkoa da 2018ko aurrekontuetarako negoziatutako kontu-sailak finkatzea, eta berdintasunerako kontu-sail espezifikoak adostea genero ikuspegitik garrantzitsuak diren aurrekontu programa guztietan, oraindik ez badira jaso.

Analisi honetatik ondoriozta daiteke beharrezkoa dela, gutxienez, kontu-sail espezifikoak txertatzea Sustapena eta Udaltzaingoa programetan. Aukera bat izan daiteke Berdintasunerako programaren 4. kapituluan kontu-sail bat txertatzea, erakunde horietan berdintasunez esku hartzea sustatzeko.

Aldi berean, hautatutako aurrekontu programetan sartu diren berdintasunerako kontu-sail espezifikoen **gastu exekuzioaren** jarraipena egingo da eta garatutako jarduerak aztertuko dira.

## Udal inbertsioen analisian sakontzea

Inbertsio programaren genero eragina modu egokian aztertu ahal izateko, b**eharrezkoa da informazio xeheagoa izatea**: zein inbertsio balioztatzen diren, zein lehenesten diren eta zertan inbertitzen den.

## Aurrekontu programetarako genero adierazleen identifikazioan aurrera egitea

Aurrekontu programetarako definitutako genero adierazleak lortzeko lanean jarraitzea, **Udalerriko Datuen Behatokiarekin batera**.

# I. ERANSKINA. EMENDAKINAK

2018ko Udal Aurrekontuen emendakinen ondorioz, Udaltzaingoaren aurrekontu-programan 3.500€ko kontu-saila gehitu da.

Kontu-sail hori kontuan izanda, gastu eraldatzailea honakoa da:

| Sailak | 1. kap. | 2. kap. | 4. kap. | 6. kap. | GUZTIRA | Aurrekontu osoaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Berdintasuna | 412.099,29 | 273.090,93 | 128.000,00 | 85.000,00 | 898190,22 | 0,20% |
| Lankidetza | | | 633.748,00 | | 633.748,00 | |
| Gizarte Ongizatea | 115.000,00 | 15.000,00 | | | 130.000,00 | |
| Heziketarako programak | | 60.144,35 | | | 60.144,35 | |
| Giza eskubideak | | 4.000,00 | | | 4.000,00 | |
| Kultur aniztasuna | | 10.000,00 | | | 10.000,00 | |
| Donostia Kultura | | 31.600,00 | | | 31.600,00 | |
| Musika eta dantza eskola | | 4.770,00 | | | 4.770,00 | |
| Udaltzaingoa | | 3.500,00 | | | 3.000,00 | |
| Gazteria | | 20.500,00 | | | 20.500,00 | |
| Donostia Kirola | | 7.360,00 | | | 7.360,00 | |
| Hiri mantentzea eta zerbitzuak | | 25.000,00 | | | 25.000,00 | |
| DBUS | | 4.500,00 | | | 4.500,00 | |
| Herritarren parte hartzea | | 6.000,00 | | | 6.000,00 | |
| **GUZTIRA** | 527.099,29 | 465.465,28 | 761.748,00 | 85.000,00 | 1.839.312,57 | **0,41%** |

Emendakinen ondorioz egindako aldaketak eta gero, gastu eraldatzailearen ehunekoa aurrekoaren berdina da, alegia %0,41, eta aurrekontuaren guztikoa 444.990.937,81 €koa da.